

TOKIKOM

2021eko apirila | 213. zenbakia

ai!r!

txorizkaria

Ramon Juste Jordan

Munduko ikertzaierik
onenetarikoa

IñakiPinedoAlexAlbarranMatxinadaBand



Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?




Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  **4 Eretxiak**
-  **5 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Itxialdia**
-  **12 Gurean izan da... Iñaki Pinedo**
-  **14 Gaztea eta... Goiatz de la Fuente, kirolaria**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Bilboko Euskal Museoaren biltegia Zamudion**
-  **20 Ramon Juste, ikertzailea**
-  **24 Gure merkatariak**
-  **26 Enplegua**
-  **27 Bizkargi Eguna**
-  **28 Matxinada Band**
-  **30 Alex Albarran, argazki-kamara bidelagun**
-  **32 Emaus**
-  **33 Krisi-garaiak...**
-  **34 Teknologia... Hidrogeno berdea**
-  **35 Aikorrizketa**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



28 Matxinada Band



30 Alex Albarran, argazki-kamara bidelagun



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorie-
rriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili,
Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Azler Garcia, Erika Pereda, Itsasne Zubiri, Xabier Diaz,
Arrate Gaztelu eta Alexander del Rio

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Iratxe Pirla

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Zein da zurea?

Ez daukat batere argi pandemiaren amaierara eramango gaituen tunelean sartu garen ala ez; baten bat ausartu da tunel horren amaieran ikusten den argia begiztatu duela esatera (bai ausarta... esango nioke nik...), baina ez dut zalantzarik baieztatzeko, gizarte gisa, egoera honekin oso nekatuta gaudela, eta tunel hori luze baino luzeagoa egingo zaigula.

Hau guztia amaitzen denean... Esaldi hori ezaguna egiten zaizue? Zenbat aldiz esan edo entzun duzue? Bada, galdera horri erantzuteko, jakiteko zer egin nahiko genukeen hau guztia amaitzen denean, lagun eta etxekoen artean inkesta bat egitea erabaki dut (soziologoek eta estatistikan adituek barkatu diezadate).

Etorkizunari begira, hauek dira erantzunak: kontzertu bat (baina lehengoetako bat, zutik eta trago bat eskuan), familia

osoarekin tripa-festa ederra (bere bazkalondoarekin), herriko jai batzuetara joan (etxera itzultzeko ordutegi barik)... Denak, den-denak, neurri handiagoan edo txikiagoan, musikari lotutako planak dira.

Bestaldetik, oraintsuko iraganari begiratzen badiogu, balkoietan bat-bateko kontzertuak izan ditugu, online ere disfrutatu ditugu, musika ospitaleko ZIUetan...

COVID-19 pandemiaren hilabete txarrenetan Spotify musika plataformaren erabilerak % 18ko gorakada izan zuen. Adibide bat besterik ez da, baina datu horrek agerian uzten du, pertsonak etxean gelditu ginen bitartean, musikak mugiarazi gintuela.

Kulturaren sektorea, oro har, eta musika, bereziki, osasun-egoeraren kaltearen handiak dira. Ez ditzagun ahaztu. Gai izan gaitzeen sektore hau bere osotasunean baloratzeko, arlo ekonomikoan, sozialean



ERIKA PEREDA,
Andereñoa eta kazetaria

eta, batez ere, emozionalean duen garrantzia erakutsi duelako.

Duela 20 mende baino gehiago Platonen esan zuen musikak gure arimak sendatzen dituela. Pandemia bete-betean, duela hilabete batzuk, sare sozialen bidez mezu hau iritsi zitzaidan: 'Inor ez da onik ateratzen abesti on batetik'. Denok geurea daukagu, zein da zurea?

1.113 karaktere hipokrita, kantsatu eta desordenatu

Euskal derby ederra lehengo eguneko, e! Etxe aurrean hogeita bost tximino -barka, primateok, hori baino ez zait okurritu...-, hirurogeita hemezortzi artaburu eta ehun bat alu oihuka edukitzea merezi izan du. Eta Bilboko anabasa ikustea, eta Donostiako alkatea Donostiakoak Bilbokoak baino suabetxoagoak izateaz harro berbetan entzutea. Zirku pandemiko itzela gurea. Jakina, besteek egindako arduragabekeriez kexaka ibiltzea ezin falta... Gero baten batek neurreak aurpegiatu eta, denbora librez estu eta kantsatuta nabilenez, erraz kentzen dut gainetik errua.



AZLER GARCIA
Hizkuntzalaritzan doktoregaia

Iparraldea itxialdian, etxebizitzatik 10 kilometrora bada ere. Baina behintzat, Frantziako Asanbleak hizkuntza gutxituen aldeko legea onartu du bozkaz. Matematika ondo ikasiko dute orain ume koitaduek? Matematika errazagoa ei da erdaraz, erdara hori edozein dela ere. Lar aurreratzen nabil beharbada, eduki-irakasgaiak, inportanteak, euskaraz emateko eskumena onartuko duten ere ez dakigu eta.

Hona 1.113 karakteretan kabitzen zaizkidanak. Baina ez pentsa horretaz ere kexaka natorkizunik, Aikor!-ek gehiago eman nahi eta nik minimoa negoziatu nuen eta.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Lezamako arau subsidiarioek ez dute onartzen herrian zabortegirik eraikitzea

Lezama Bizirik elkarteak eta Lezama-ko Udalak jakinarazitako informazioaren arabera, enpresa sustatzaile batek herrian zabortegi bat egiteko interesa adierazi du. Lezama Bizirik elkarte oso kezkatuta azaldu da eta adierazi du zabortegi horrek Zaldibarrekoaren edukiera bikoitza izango lukeela. Udalak, bestalde, jakinarazi du 1988ko hiri-antolamenduko arau subsidiarioek ez dutela onartzen herrian zabortegirik eraikitzea eta, ondorioz, ez dagoela herrian horrelako azpiegiturak eraikitzeke aukerarik. Udaleko alderdiek deituta, bilerak egin dira azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko.

Lezama Bizirik elkarteak helarazi duenez, zabortegi hori "Euskadiko handiena izango litzateke eta aritmetikoki konponbidea emango lioke autonomia erkidegoko industria-hondakineterako defizitari. Arantxa Tapia sailburuak defizit horren berri eman du duela gutxi". Horrela, elkarteak azaldu duen moduan, "zabortegia Ganguren mendiko hegalean kokatuko litzateke, Lezamaren eta Zamudioren arteko mugan, Txorierriko korridorerako sarbidearen gainean, eta 40 hektarea hartuko litzuke. Lau milioi metro kubiko hondakin hartzeko edukiera izango luke, Zaldibarreko zabortegiaren bikoitza hain zuzen, eta jaso litezkeen hondakinen kalifikazio bera. Eguskitza ibaiaren goi-arro osoa hartuko luke, eta, ondorioz, erreka



ia desagertuko litzateke. Proiektuaren gaineko dokumentazioa egin du autonomia erkidegoko zabortegien proiektu nagusiez –Zaldibar, Mallabia...– arduratu ohi den ingeniari-entresak eta, hori dela eta, gaia serioa izan daitekeen ondorioa atera dugu".

Beste aldetik, Lezamako Udalak azaldu du URAk (Uraren Euskal Agentziak) kontsulta egin zuela enpresa sustatzaile batek Aretxalde auzoko Eguskitza base-ri inguruan "amaierako zabortegia duen balorizazio-planta" bat eraikitzeke interesaren harira. Gaia aztertu ondoren, "Lezamako Udalak erakunde eskudunei jakinarazi die, 1988ko hiri-antolamenduko arau subsidiarioek ezarritakoaren arabera,

proposatutako erabilera debekatuta dagoela eta, beraz, ez dagoela aukerarik herrian horrelako azpiegiturak eraikitzeke, ez delako aurreikusten, inola ere, udalerrian horrelako jarduerak egin ahal izatea". Era berean, "arau subsidiarioek honelako ekintzak baimentzen ez dituztela kontuan izanda, udalak ez du kontsideratu Lezaman horrelako azpiegitura baterako udal-jardueraren lizentzia ematea, ezta izan daitezkeen afekzioak ere".

Azkenik, udalak jakinarazi du, 2020ko maiatzeko Osoko Bilkuran xedatu moduan, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria lantzeko prozesua aurtun hasiko dela eta gardentasunean eta biztanleriaren partaidetzan oinarrituko dela.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Eteagabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

XURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Krimasajeri

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - LORJA | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.com

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Nire Autocasion

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonos-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

ERREKA

ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 28 29

TABERNA GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

Zergak Bizum bidez ordaindu ahalko dira Loion

Josu Andoni Begoña Loio alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, udalak Bizum ordainketa-sistema onartuko du herritarrek udal-zergak ordaindu ditzaten; hau da, loiuotarrek mugikorraren bidez ordaindu ahalko dituzte zergak. "Pandemiaren eraginez, konfinamenduan izan gara behin baino gehiagotan, eta helburua da herritarrei laguntzea joan-etorrien zailtasunei aurre egiten. Era berean, kudeaketa publikoan teknologia berriak erabiltzearen aldeko apustua da", idatzi du Begoñak.

Azaldukoaren arabera, lehenengo eta behin proba egingo dute ibilgailuen gaineko zergarekin eta emailtza positiboa bada, apurka-apurka zerga gehiago ordaindu ahalko dira sistema honen bidez. Bizum ordainketa-sistema erabili nahi dutenek hura aktibatu beharko dute euren banketxean, eta ondoren udalaren Ogasun Sailera deitu, metodo honen bidezko ordainketa eskatzeko. Mugikorrean



mezu bat edo posta elektronikoko bat jasoko dute: datuak egiaztatu eta ordainketa onartu beharko dute.

Beste aldetik, "gaur egungo egoera kontuan hartuta eta herritarrei ordainketa errazteko", Loio Udalak erabaki du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea ekainaren 30era arte luzatzea.

Larrabetzun amaituko da Laburbira

Laburbira euskarazko film laburren zirkuitua ibiltaria da eta aurreko hamazortzigarrenez antolatu da. Zirkuituak 29 herri zeharkatuko ditu eta kalitate handiko zortzi lan ikusteko aukera emango du. Laburbira apirilean hasi zen Ordizian eta Larrabetzun amaituko da maiatzaren amaieran. Egitasmoa Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du eta Larrabetzun Darabilgu elkartearen laguntza izan dute horretarako. Pandemiaren bilakaera dela eta, apirileko edizioa ixtean ezin izan da zehaztu saioa noiz eta non egingo den; hala ere, aurreratu dute saio horretan zuzendariekin solasaldian egoteko aukera egongo dela.

"Pandemiaren ondorioz, ikus-entzunezkoen grabaketa eta ekoizpen asko bertan behera gelditu ziren iaz. Nolanahi ere, badira kostata aurrera atera ziren lanak eta horiei oihartzuna emateko erantzukizuna dugu Laburbiran", azaldu du Johana Olabarria egitasmoaren antolatzailerak. Zirkuitua osatzen duten film laburrak aukeratu dituzte "haien istorio eta kalitate nabarmenagatik eta jaialdietan

izandako harreragatik". Lanak hauek dira: *Aterpean ateri* (Ruben Crespo), *Nigandik* (Imanol G. Gurrutxaga), *Game over* (Ilune Diaz), *Ilunabarrean* esan (Ekhiñe Aizkorbe), Sara Alonso, Irati Egibar, Julene Etxauri, Xabier Villanina eta Irene Zaldua), *Babarun Txapelketa* (Andoni Martinez de Madina eta Julien de la Serna), *Datsegit* (Aitor Arruti), *Nire eguneroko maitea* (Ximun Fuchs, Manex Fuchs, Eñaut Castagnet) eta *Agur* (Iñigo Acha).



HAP0a egiteko prozesu parte-hartzailea abiarazi du Deriok

Derioko Udala Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) osatzen dabil. Horri lotuta, eta herritarren beharrianak ezagutzeko, apirilean prozesu parte-hartzaile bat hasi zuen udalerria modernizatzeko proiektuak ezartze aldera. Apirilean bertan informazio-bilera egin zen, baina derioztarrek ekarpena egiteko aukera dute oraindik horretarako egindako webgunearen bidez edo paperezko galdetegi bat beteta.

Udalaren hitzetan, HAPOa erreminta estrategikoa da eta Derio “egungo egoera sozialera, ekonomikora, kulturalera eta urbanistikora egokitutako plangintza orokorreko tresnaz hornituko du”. Hortaz, “udalerrariaren eredua definitzeko balio duen dokumentua da; lurraren antolamendu integrale-rako oinarritzakoa da eta bere bitartez sailkatuko da lurzorua, zehaztuko da lurzoru bakoitzari ezarri dakioken araubidea eta definituko dira udalerriko ekipamenduen, azpiegituren eta berdeguneen funtsezko elementuak”.

Derioztarrek www.hapo-derio-eus web-gunean formulario bat bete ahalko dute maiatzaren 12ra arte. Gainera, HAPOari



lotutako informazio guztia ere kontsultatu ahaliko da webgune horretan. Era berean, Kultur Birikan paperezko galdetegi bat jaso eta utzi ahaliko dute maiatzaren 12ra arte. Galdetegia HAPOren webgunetik ere deskargatu ahaliko da.

“HAPO berriak herritarren eta ahalik eta
elkarte, entitate eta erakunde gehienen
ideiak eta gogoetak jasotzea nahi dugu,
baita hainbat arlotan egin ditzaketen

ekarpenak ere, hala nola ingurune natu-
ranean, mugikortasunean, etxebizitzan,
jarduera ekonomikoan, ekipamenduetan,
iraunkortasunean eta inklusibitatean”;
esan du Esther Apraiz Derioko alkateak.
“HAPOk zuzeneko eragina izango du uda-
lerriaren gizarte-, ekonomia- eta inguru-
men-garapenean eta Derio etorkizunean
nolakoak izatea nahi dugun zehazten la-
gunduko ditu”.

PAR
INMO
BOUTIQUE

ERAIKUNTZA BERRIKO AZKEN ETXEBIZITZA LIBREAK LARRABETZUN

Orain
225.000 €-tik
aurrera

3 logela
3 komun
Officea
Garajea
Trastelekua

 **699 129 080**

Kooperatiba erregimeneko sustapena, eraginkortasun
energetiko handiko ziurtagiria duena

Karabanetarako gune berria Larrabetzun

Aparkalekua Mirandako bihurtu gunean dago eta, udalak azaldu duenez, ez du zerikusirik asfalto nagusi den karabanetarako zerbitzuguneen ohiko prototipoarekin. "Aretxabalgane errearen mendoak mugatzen duen lur-eremuak bere irudi paisajistikoa berreskuratzen du; asfaltozko zoladura ezabatu da eta, haren ordean, belarra haztea ahalbidetzen duen manta berdea jarri da, lurzorua egonkortzaile bat duena. Hain zuzen ere, lurzoru berde hori indartuta dago, aparkalekuetarako sarbidean autokarabanen maniobrak ahalbidetzeko".

Guneak bost aparkaleku ditu, eta egoteko lekua, kanpinariak zein herritarrek erabili dezaten. Aulkiak, mahaia eta barbakoak erre ipini-ko dira laster. Lanotarako 249.055 euro ipini dira eta Eusko Jaurlaritzak 84.529 euroko dirulaguntza eman du.



Bizkaibusek sei autobus hibrido gehitu ditu Txorierriko lineara



Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailak apirilaren erdialdean aurkeztu zituen Txorierriko lineetan abian jarri diren Bizkaibuseko sei autobus hibridoak. Azaldu dutenez, autobusek teknologia hibrido aurreratuena dute gas kutsagarrien isurpena murrizteko eta erregaia aurrezteko. Bestalde, ibilbide luzeak egiteaz gainera, autobusek zailtasun teknikoei egin behar diete aurre, eta, esandakoaren arabera, eredu hibridoek ondo erantzuten diete behariz horiei. Gainera, hirian zein metropolian erabiltzeko moduko ibilgailua da.

Autobusek 2.069.400 euro (gehi BEZa) balio izan dute. Magnus Hibrido modelokoak dira 12 metroko Low Entry II klasekoak; modelo hori merkatuko hibrido indartsuena da, eta trakzio elektrikorik

handiena duena. Era berean, gaur egun teknologia hibridorik aurreratuena duen eredu bat da eta 320 CV-eko diesel motorra du, eta 177 CV-ko motor elektrikoa. Segurtasun-, irisgarritasun- eta iraunkortasun-arloko prestazio handiak ditu eta, ondorioz, erregaia aurrezteko egiten da eta gas kutsakorren isuriak murriztu egiten dira. Autobus bakoitzak 41 lagunentzako toki du (eserita), gupil-aulkietarako edo umeen orgatxoetarako bi leku, eta mugikortasun murriztua duten bi lagunentzako toki. Bestalde, autobusera erraz igo daiteke, eta autobusetik erraz jaitsi, ez baitu eskailera-mailarik. Arrapala automatikoa bat eta beste eskuzko arrapala bat ere baditu.

Aurreikuspenen arabera, aurten 12 metroko eta 11 metroko beste bost ibilgailu hibrido izango dira Bizkaibuseko lineetan.

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Carrefour express
ORDUTEGIA
Asteleneetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30
Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

TXORIERRI Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
areagoradik gorta
AHOLKULARITZA, TASAGROA
ALOKATZEAK, ENKUALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGURORIK BILBAOEN AGENTZIA

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Airetza doktorea, 11. - 1. ed.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Kirol-materiala biltzeko kanpaina Larrabetzun

COVID-19a dela eta, "Oporrak bakan" egitasmoa bertan behera gelditu da aurten. "Bakerik gabe ez dago oporrik, materialik gabe ez dago kirolrik" lelopean, ekimen ordezkoa egingo dute eta kirol-materiala batuko da Saharara bidaltzeko. Bilketa maiatzaren 3tik 17ra bitartean izango da frontoian eta, besteak beste, txandalak, kirol-oinetakoak eta baloiak jasoko dira.

Skate-pista konponduta Zamudion

Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, konpontze-lanak izan dira Bidekoetxe parkeko skate-pistan. Besteak beste, zuloak eta altxatuak konpondu dira. Arrapalako ertz metalikoa ere kendu da eta haren ordez igerilekuetan erabiltzen den ertza ipini da. Era berean, pintura irrista-gaitzez margotu da pista; pintura hori hezetasun-kontrakoa ere bada.



Repsol gidak Txorierriko jatetxe bi saritu ditu

Repsol gidak Eguzki sariak banatu zituen Donostiako Maria Eugenia antzokian. Orotara 96 jatetxe saritu zituzten eta haien artean Larrabetzuko Horma Ondo jatetxea egon zen, Eguzki bat jaso zuena. Bestalde, Larrabetzuko Azurmendi jate-txeari ere Eguzki Jasangarri saria eman zioten.



Azken berriak zuzenean zure mugikorrera



Hemendik aurrera, Txorierriko albiste garrantzitsuak eta azken ordukoak mugikorrera jasotzeko aukera duzu. Horretarako, ALTA hitza idatzita, whatsapp mezua bidali behar duzu 747 406 561 telefono-zenbakira. Egunero albiste bat bidaliko dizugu eta, gainera, zuk ere bidali ahalko dizkiguzu herriko albisteak, argazkiak eta bideoak. Bestalde, alta egiten duzuen artean bi lagunentzako bazkaria zozketatuko dugu hilero. Bazkaria Derioko Baserri Antzokian izango da eta zozketa hilaren hasieran egingo da.

Gogoratu: bidali ALTA hitza 747 406 561 telefono-zenbakira eta jaso itzazu mugikorrean Txorierriko azken albisteak.



"Sukaldaritza ez ezik, gastronomia modu zabalean ere ikasten da gradu honetan"

*Maria Jubeto (Bilbo, 23 urte)
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak graduako 3. mailan dago, berrikuntza, negozioa eta ekintzailetza espezialitatean. Madrilen praktikak hasiko ditu aurki, Anson & Boneten.*



Oso frogatuta dago ikasteko modurik eraginkorrena dela. Horrez gain, taldean eta hainbat herrialde eta kultura ezberdinetako pertsonekin lan egiten ohitzea. Prestakuntzaren zati oso garrantzitsua talde lana da.

Zer gustatzen zaizu gehien unibertsitatean? Eta hobetzeko zerbait?

Gehien gustatzen zaidana irakasle bidez sortzen den kontaktu-sarea da, gure artean ezagunak baitira. Komunitate handi bat bezalakoa da, eta beti dago norbait prest zuri laguntzeko, behar duzun guztian. Bekak eta laguntza ekonomikoak hobetuko nituzke.

Zer eman dizute kanpoko praktikek?

Pertsonalki, 1. eta 2. mailako praktikak sekulakoak eta oso erabakigarriak izan dira nire etorkizunerako; izan ere, praktiketan benetako bizitza nolakoa den ikus dezakezu, eta zure etorkizunerako nahi duzuna zalanztan jar dezakezu. Lehen mailan, Urola Etxean egon nintzen, praktikak aretoan eta sukaldean egin ditzakezu, eta hor ikusi nuen nire etorkizuna ez zela sukaldean egongo. Bigarrenean, Martzial Etxean egon nintzen, aretoan bakarrik, eta sekulakoa izan zen.

Zein dira etorkizunera begira ditzun helburuak?

Nire ustez, etorkizunean egingo dudana oraindik ez da existitzen, une honetan lanpostu berriak sortzen ari direlako eta ostalaritzaren eta turismoaren mundua aldatzen ari delako.

Non egin dituzu orain arte ikasketak? Baduzu zaletasunik?

Basque Culinary Centerren sartu aurretik, laneko arriskuari buruzko gradu bat ikasi nuen. Hipika asko gustatzen zait eta itsasoaz asko gozatzen dut. Donostiak maite-miniduta nauka.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gradua ikasten ari zen ezagun batek zein zen unibertsitatearen dinamika, programa eta filosofia azaldu zidan. Graduak eskaintzen duen aukera zabalagatik aukeratu nuen. Izan ere, sukaldaritza ez ezik, gastronomia ere ikasten da esparru guztietan. Gainera, prestakuntza mota hori Mondragon Unibertsitateak bakarrik eskaintzen du.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Nire esperientzia errusiar mendi bat bezalakoa izaten ari da, une oso onak daude eta beste batzuk ez hain onak, gozatzeko uneak, sufritzeko uneak. Oro har, oso pozik nago esperientziarekin.

Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerren ikaskuntza-metodologia?

Metodologia eginez ikastea oinarritzen da.

Kontzertuak BANen

Pandemia dela-eta Bilboko Azkena aretoa itxita dago eta programazioa Baserri Antzokira eraman da. Apirilean, esaterako, Ian Kay, Los Retumbes eta Moonshine Wagon taldeek jo dute bertan eta apirilaren 30ean Fernando Alfarok joko du. Maiatzarako, hurrengo kontzertu hauek antolatuta dira:

- Amann & The Wayward Sons. Maiatzaren 1ean, 17:30ean.
- Lucas Colman. Maiatzaren 7an.
- King Sapo. Maiatzaren 8an, 17:00etan.
- El Pacto Rock Band. Maiatzaren 14an.
- Frank Mariscal & Ferran Exceso. Maiatzaren 15ean.



www.facebook.com/lucascolmanoficial

Loiuko umeen parkeak

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak azaldu duenez, umeen parkeak berritzen eta modernizatzen dabilta. Zehatz-mehatz, ludoteka berria ipiniko da Zabaloetxeko Kultura Etxean, eta txiki-txoko-park bat atundu. Gainera, olgetarako parke berria jarriko da udaletxearen atzean. Bestalde, Larrondoko Zentro Zibikoa berritzen dabilta eta horretan ere ludoteka berria egongo da. Gainera, udalak auzoko txinboetan estalkia ipintzeko asmoa du, eta erabilera anitzeko belar artifizialezko zelaia egin. Azkenik, gaztelua ipini da Lauroeta auzoan, auzoko zein herriko umeen gozamenerako.

Lezamak gizarte-zerbitzuen eta laguntzen aldeko apustuari eutsiko dio



Lezamako Udalak 2.644.635 euroko aurrekontua onartu du 2021erako, iaz baino % 11 gutxiago, "COVID-19ak ekarri baitu diru-sarrerek eta Udalkutxaren ekarpenak behera egitea; azken hori % 12 gutxitu da" azaldu dute prentsa-ohar baten bidez. Nolanahi ere, udalak ziurtatu du herritarren ongizatearen aldeko apustua egiten jarraituko duela eta 250.000 eurotik gora bideratuko dituela gizarte-zerbitzuetara eta pertsonen eta establezimenduen beharrianak betetzen laguntzera.

"Pandemiak eragindako egoera zail batean gaude eta gure lehentasuna da herritarren beharrianen erantzutea", esan du Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatea. Horren harira, "udalak bere horretan utzi ditu udal-tasak eta zergak eta zabor-tasen hobariak ezarri ditu merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetarako".

Herria hobetzeko inbertsioei dago kienez, udalak aurreko urteetako soberakina baliatuko du hainbat lan egiteko. Jakinarazitakoaren arabera, 390.764

euro erabiliko dituzte, besteak beste, Aretxalde auzoko gune batzuetan ur-sistemari lotutako hobekuntzak egiteko eta frontoiko goiko aldea eta udaletxeko beheko aldea konpontzeko. Bestalde, 600.000 euro baino gehiago bideratuko dituzte herriko kaleak hobetzeko, hala nola errepideak asfaltatzeko eta argiztapena hobetzeko. Udal-artxiboak eta espedienteak digitalizatzeko asmoa ere badute, eta Goiko Taberna udal-eraikinean lanak egiteko.

Bestalde, Saretzen elkartarekin eta Adintsuen Elkartarekin batera, udalak elkartasun-zozketa bat antolatu zuen herriko familia behartsuei egoera ekonomikoa arintzen laguntzeko. Bi sari egon dira: alde batetik, Athleticeko jokalariek sinatutako 2021eko Superkopako finaleko baloia; eta bestetik, Athleticeko elastikoa eta bisera eta Athleticeko eta Errealak jokaturako Errege Kopako Finaleko bufanda oroigarria, Saretzen elkartearen eskutik. Zozketan parte hartzeko txartelak euro batean saldu ziren eta guztira 1.100 euro batu dira.



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Teoriamikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

L. LEIZABLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)

946 522 857



OAKLAND

ENGLISH

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Negua, negu iluna, etengabeko gaua. Lurra garbi, elurra eta izotza elkarlanean, emankor, prest, umel, sakon, loreei bidea eginez. Eta horrela izan da, egun bat eta beste bat, eta horrela etorri da udaberria. Inguruneari begiratzeko eta arnasteko sasoia, koloreak eta usain goxoak bizitzeko aukera. Goza dezagun loreez, osotasunean! Goza dezagun naturaz, dardaratsu! Goza dezagun, gu ere udaberria garelako!

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85

“Arraunketa kirola baino gehiago da: Kantauriko biztanleen kultura-ondarea da”

IÑAKI PINEDO | dokumentalen zuzendaria

Pinedok *Ziagoba* dokumentala aurkeztu zuen apirilean Derion. Hiru urtean egindako lanaren emaitza da eta, Kantauri itsasoko estropaden historia batzeaz gainera, egileak arraunketarekiko sentimendua islatu du bertan.



t: Itxaso Marina Ondarroa

***Ziagoba* erronka izan da zuretzat, aurretik gehienbat gizarte-izaerako dokumentalak egin dituzu eta.**

Konfort-zonatik atera behar izan nuen zuzendari moduan, eta harreman gutxi izan dudana esparru batean saiatu: kirolean. Are gehiago, arraunketan saiatu nintzen, eta kirol hori oraindik bereziagoa da, jende gutxi praktikatzeaz gainera, oso gogorra delako. Bestalde, *Ziagoba* urteetan kaxoi baten barruan egon den proiektua da. Angel Obregon arraunketan historialari aditua da, eta Deustu Arraun Taldeko arraunlaria. Berak eta biok ipini genuen abentura hau martxan 2016an:

bere ezagutza barik ezinezkoa izango zatekeen kirol honekiko sentimenduan sakontzea.

Zein izan zen dokumentalaren abiapuntua?

Oso ikuspuntu erromantikoa nuen arraunketari buruz, baina ez nuen kirola sakon ezagutzen. Txiki-txikitatik erakarritzat jo dut arraunketaren inguruan dagoen guztia: traineruak, arraunak, arraunlarien eskuak eta arraunean ibili osteko odola eskuetan, koloreak, zaleak... Dokumentalak erakarpen hori du abiapuntutzat.

“Oso ikuspuntu erromantikoa nuen arraunketari buruz, baina ez nuen kirola sakon ezagutzen”

Eta helburua?

Dokumentalean arraunketarekiko sentimendua islatu nahi nuen, eta horretarako, arraunketa bizi eta bizi izan dutenen testigantza baliatu; kontatu nahi nuen telebistan ikusten ditugun estropaden irudi hunkigarrien atzean zer dagoen.

Crowdfunding-aren emaitza da.

Hasi ahal izateko gutxienean baliabideak lortu genituenekin ekin genion proiektuari: “edo traineruan sartu eta arraunean egiten hasten ginen, edo proiektua betiko geldituko zen airean”. Baliabide ekonomikoak agortuta, *crowdfunding*-era jo genuen eta egindako diru-ekarpenei esker lortu genuen lana amaitzea. Azkenean, pertsona eta erakunde askok hartu dute parte proiektuan, ekonomikoki zein beste baliabide batzuk emanaz. Dokumentala 2016ko apirilean hasi, eta 2019ko apirilean estreinatu genuen. Horretan, Kantauri itsasoko ertz osoko emakume eta gizon arraunlarien testigantza batu da: Jose Luis Kortarena, Antonio Olidenena, Jon Salsamendirena, Andrea Oubiñarena, Oihan Gozategirena... Soinu-bandan, besteak beste, Gorka Hermosa soinuaria eta musikagilea eta Aitor Furundarena Tadasak taldearen kidea aritu dira.

Kantauriko estropaden istorioa batu duzu dokumentalean, batez ere aurreko mendeko 40ko hamarkadatik gaur egun arte; lan itzela.

Ikerketa-lan handia egin behar izan zen hasieran, baina Obregon taldean sartzeak erraztu egin zigun hori. Nire lanetan ohikoa denez, *Ziagoba* dokumentalean ez dago narratzailerik: parte-hartzaileen tes-



tigantzak ditu ardatz; hau da, ahozko oroimena. Horregatik, kontu handiz aukeratu behar izan genituen parte-hartzaileak eta denbora luzea eman genuen lan horretan; 14 urtetik 96 urtera bitarteko lagunak dira. Elkarriaz gehienak lehiaketa-egutietan egin behar izan genituen arraunlariekin hitz egin ahal izateko; gainera, uretan filmatu behar genuen!, eta egun guzti-guztietan eguraldiaren menpe izan ginen: eguneko zeregina bertan behera utzi behar izan genuen askotan. Erabat korapilatsua izan zen, baina esperientzia ikaragarria.

“Erabat korapilatsua izan zen dokumentala filmatzea, baina esperientzia ikaragarria”

Nolakoa izan zen Kontxako Banderan filmatzea?

Kontxako Banderan gehienbat 2016an eta 2017an egin genuen lan. Oso eguraldi txarra egon zen azken urte horretan eta txapelketa bertan behera gelditzear egon zen; hala ere, intentsitate handiko estropada izan zen: nahiz eta faboritoa ez izan, Oriki irabazi zuen eta sinestezina izan zen. Zaleek arrapalan erakutsitako jarrera ere zaila da deskribatzen: besarkadak, negarra, barre-algarak, oihiak... kontatu nahi

genuena ondo baino hobeto adierazten duten sentsazio-mukurua. Arraunlari guztiek –galegoek, asturiarrek, kantabriarrek, euskaldunek eta frantsesek– esaten dute-nez, Kontxa Kontxa da.

Arraunketa ez ezik itsaskilariak, traineruak garraiatzea... ere dituzu hizpide.

Arraunketari lotutako errealitate-sorta zabala erakusten ahalegindu gara. Ez da bakarrik kirol-dokumentala; lan etnografikoa ere bada eta jardueraren beraren balioa azpimarratu nahi izan dugu, izan ere, arraunketa kirola baino gehiago da, eta Kantauriko biztanleen kultura-ondarea.

“Lan etnografikoa ere bada eta jardueraren beraren balioa azpimarratu nahi izan dugu”

Emakumeen lanaren balioa ere azpimarratu duzu.

Dokumentalaren beste helburu bat da emakume arraunlariei ahotsa ematea eta txapelketetan duten garrantzia adieraztea, baina arraunketaren historia osoan izan duten eginkizuna ikusgai egitea ere bai, ez baita izan bakarrik arraun egitea. Asko gusatzaten zaizkit dokumentaleko emakumeen esanak, hunkigarriak dira oso.

Hasierako ideia izan zen dokumentala parte-hartzaileen jatorrizko hizkuntzan filmatzea, baina azkenean



gaztelania hutsean filmatu da. Zer dela eta?

Protagonisten jatorrizko hizkuntza errespetatzeko asmoa genuen –euskara, galegoa, asturiera, gaztelania eta frantsesa–, eta azpiztituluak ipini, kultura- eta hizkuntza-aberastasuna adierazteko. Halere, diru faltagatik, praktikotasunaren alde egin genuen azkenean. Erabakia hartzea oso gogorra izan zen, jatorrizko hizkuntzak errespetatzea baitzen egitasmoaren alderdi garrantzitsuetariko bat.

Ziaboga Mexikora, Txilera, Kolonbiara eta Argentinara eramateko asmoa zenuen, ez dakit aukerarik egon den...

Horretan gabiltza. Bogotan ikusi da jadanik, baina pandemiak gelditu du dokumentala hedatzea. Joan den urteko udan emanaldi asko bertan behera gelditu ziren, edo atzeratu.

Labur-labur

Iñaki Pinedo Otaola (Bilbao, 1960) biologoa da eta gaur egun irakasle dabil Kantabriako institutu batean. Pinedok 20 urte baino gehiago daramatza irakaskuntza eta dokumentalak egitea uztartzen. Ziaboga lanaz gainera, lau lan-dokumental filmatu ditu: El hombre que murió dos veces, Marea, La escuela fusilada eta Los otros Guernicas. Apirilaren amaieran, sormen-prozesuari buruzko dokumentala egiten hasi da Kantabriako margolari ezagun baten eskutik. Bestalde, Pinedok Vamos de cine egitasmoa koordinatzen du; egitasmoaren helburu nagusia da zinema irakaskuntzan tresna didaktiko moduan erabiltzea.



“Nire helburua da edozein kirol-mota egiteko gaitasuna izatea”

t: Itxaso Marina Ondarroat

GOIATZ DE LA FUENTE MORENO | kirolari peto-petoa

Zer dela eta zara hain kirolzalea?

Aita ere oso kirolzalea da eta erreferentzetat dut. Beste aldetik, oso urduria naiz eta kirola egin behar dut urduritasuna baretzeko. Gainera, oso-oso ondo pasatzen dut kirola egiten. Korrika egiten dut, bizikleta eta igeriketa, eta gimnasioa ere joaten naiz. Eta bihar patinaketa, esaterako, aritzeko gogoak emanez gero, horretan ere saiatuko nintzateke arazo barik.

Noiztik egiten duzu korrika?

Hamalau urterekin hasi nintzen, nire kabuz. Gehien gustatzen zaidana trail-a egitea da, hau da, menditik korrika egitea, baina herritik-eta ere egiten dut korrika. Bilboko erdi maratoian ibilia naiz, Bizkaia Zubiko erdi maratoian, San Silvestre lasterketan, Bizkaiko Trail Kopan... Oso giro positiboa da eta jende asko ezagutzen da. Nolanahi ere, lehiaketatik harago, nire buruari helburu hauek ezartzen dizkiot: lasterketetan parte hartzea, horiek bukatzea eta asko disfrutatzea.

Eta igerian?

Iaz hasi nintzen igeri egiten: buruan aspalditik dut triatloia egitea, baina oso igerilari txarra naiz (kar-kar); oso burugorria ere banaiz eta horregatik hasi nintzen igerian egiten, pitika-pitika... Artxandako kiroldegian entrenatzen naiz, nire kabuz, izan ere, kirola egitera behartzen nautenean ez dut disfrutatzen. Gustatuko litzaidake uztailan Plentziako proban parte hartzea...; bueno, egia esan, ez dut prisarik.

Bizikletan saiatzera aitzak animatu zintuen, ezta?

Bai, eta aitortu behar dut hasieran ez nengoela oso motibatuta, oso kirol aspergarria iruditzen zitzaidalako; gaur



Hogeita lau urteko lezamarra oso-oso pertsona kirolzalea da. Hain da kirolzalea, ezen eguneko ordu gehienak kirola egiten ematen ditu. Kirola oso ardatz inportantea da bere bizitzan eta, gainera, hura ogibide bihurtzeko asmoa du.

egun, berriz, nire kirolik gustukoena da, mountain bikea bereziki, eta ahal dudan guztietan bizikletan ibiltzera joaten naiz. Lehendabiziko lasterketa Elorrioren egin nuen, ondoren Monegroseko maratoian izan naiz, Bilbao-Bilbao lasterketan...

Gimnasiorako zaletasuna?

Duela urte batzuk, 2015ean, Bartzelonara joan nintzen Psikologia ikastera –lehen ikasturtea baino ez nuen egin– eta han hasi nintzen gimnasioa joaten. Askok gustatzen zait, baina osasunagatik egiten dut, izan ere, plusa da niretzat, adibidez, bizikletan ondo ibiltzeko.

Kulturismoan ere animatu zara.

Zornotzako gimnasio batera hasi nintzen joaten eta hango monitoreak esan

zidan kulturismoan aritzeko ezaugarriak nituela; eta, egia esan, giharrak oso erraz lantzen ditut. Beste esperientzia bat izan da: Bizkaiko kulturismo txapelketa irabazi nuen 2018an, baina azkenean utzi egin nuen.

Zergatik?

Psikologikoki oso gogorra delako: dieta oso zorrotza egin behar da, ezin da lagunekin bazkaltzera joateko geratu, ez da disfrutatzen...

Dieta berezirik egiten duzu?

Jaten dudana zaintzen dut, noski, eta denerik hartu: fruta, barazkiak, proteina, koipea... Era berean, azukre gutxi hartzen dut, eta lasterketa dudanean, bada, hidrato gehiago jaten ditut.

“Kirola egin behar dut urduritasuna baretzeko; gainera, oso-oso ondo pasatzen dut”

Zaila izan behar da kirol horiek guz- tiak egiteko momentua topatzea.

Kardio-arietak egiten ditut astean hiru egunean, baita muskulazioa lantzeko entrenamendua ere. Horiek gura zein gura ez egiten ditut eta gero beste kirol-motak uztartzen ahalegintzen naiz aukeren arabera. Egia da ezin ditudala aste batzuetan kirol-mota guztiak praktikatuz, baina ez naiz horregatik traumatizatzen, nire helburua ondo pasatzea delako. Nire helburua da edozein kirol-mota egiteko gaitasuna izatea, eta horretarako egiten dut denerik apur bat. Esate baterako, igeri egiteko teknika ikasi behar izan dudan arren, oinarri fisiko ona dudanez, ez dut esfortzu larregirik egin behar izan. Halterofilia saiatu nahi dut? Bada, indarra landuta dudanez, egin ahalko nuke... Beharbada, ez nintzateke onena izango, baina halterofilia egiteko gauza izango nintzateke.

Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Andalucia Bike Race lasterketan parte hartzea gustatuko litzaidake, eta inoiz triatloi olinpiko batean aritzea... Baina, agian, lehenago igeri egiten hobeto ikasi beharko nuke (kar-kar).



Gainera, zaletasuna lanbide bihurtzea erabaki duzu.

Bai, entrenamendu pertsonalei eta nutrizioari lotutako ikastaroak egin ditut, eta orain gimnasioko monitorea izateko eta entrenatzailea izateko ikasketak egin nabil. Ez da kasualitatea kirola eta lanbidea uztartu nahi izatea, kirola baita gogotsuen egiten dudana: mendira joateko proposamena egiten badidate, berehala onartzen dut. Kirola doan egiten dut, are gehiago, kirola egiteagatik ordaindu ere

egiten dut; beraz, pentsa ezazue neuri ordainduko balidate! (kar-kar).

"Andalucia Bike Race lasterketan parte hartzea gustatuko litzaidake, eta inoiz triatloi olinpiko batean aritzea"



Unitzaga Itzala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierrri.net
48180 - DEIRO | Fax: 94 403 40 01 | www.txorierrri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



HETEL



40 urte, milaka txori

ATE IREKIAK

Apirilak 20 eta 29
Maiatzak 25, 26 eta 27

Eman izena webgunean:
www.txorierrri.net

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekantziako Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekantziako Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Gaztea zara?

Zaletasun edo lanbide interesgarriak duzu?

Gurekin partekatu nahi?

Hainbat saltsatan dabilen lagunak duzu?

Bera elkarriketatzeari merezi duela uste duzu?




Bidali whatsapp

688 864 135

telefono-zenbakira eta bihurtu "Gaztea eta" atalaren protagonista.

Osasun mentala COVID-19 garaian

Urtebete baino gehiago igaro da COVID-19a gure bizitzetara heldu zenetik, eta hala ere, badirudi ezin garela ohitu. Baina, ohitu al gaitzke etengabeko ziurgabetasun-egoera honetara? Ahal dugun moduan egokitzen gara errealitate berrira; hala ere, prezio altua ordaintzen egon gaitzke, izan ere gure osasun mentala jokoan dago.



Beharbada, gerrak edo hondamendi naturalak errazago identifikatzen dira, eskala handiko gertaera traumatiko gisa, osasun mentaleko arazoak baino. Hala ere, ikerketek erakusten dutenez pandemiak ere traumatikoak izan ohi dira (Lacasa, et al., 2021). Gainera, pandemiak ezaugarri berezi bat du: beste ezbehar batzuetan, beste batzuekin egonez babesteko joera izaten dugu; orain, ordea, zaintzeko modua urruntzea eta isolatzea da.

2020ko lehen olatuan, OMEK jada ohartarazi zuen isolamendu, beldur, ziurgabetasun eta zailtasun sozio-ekonomikoetatik eratorritako osasun mentaleko arazoak areagotzeko aukera zegoela. Orduetik, hainbat ikerlanek erakusten dute pandemiak osasun mentalean duen eragina.

Ugaritu al dira osasun mentaleko arazoak?

OMEren arabera, buruko osasun arazoak areagotu egin dira pandemia garaian. Datuek erakusten dute estres-, antsietate- eta larritasun-mailak igo egin direla. COVID-19ak ekarritako egoerarekin gaixotasun mentalak zituzten pertsonen buruko gaixotasunak larriagotu egin dira, eta beste pertsona batzuek lehen aldiz pairatu dituzte. Hala ere, osasun mentaleko zerbitzuetarako sarbidea murriztu egin da murrizketen ondorioz, eta horrek are gehiago larriagotzen du egoera.

Espainian, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) erakusten du Espainiako biztanleen %6,4k osasun mentaleko profesional batengana jo duela pandemia garaian antsietatea (%43,7) eta depresioa (%35,5) direla eta. Biztanleen %5,8k tra-

tamendu psikofarmakologikoa jaso dute, batez ere, antsiolitikoak eta antidepresiboak.

Konfinamenduan, areagotu egin dira izu-atakeak, gizarte-bazterketaren sentimendua eta, batez ere, interesik eza eta goibel sentitzea. CISen arabera, herritarren %50ek baino gehiagok tristura edo antsietate motaren bat sentitu du pandemian (Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS), 2021 eta Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioa, 2021).

Kolektiboek modu desberdinean pairatzen al dute pandemia?

Maila sozioekonomikoaren arabera: CISen datuek desberdintasunak erakusten dituzte kolektiboen artean. Nabarmentzen dute baliabide sozioekonomiko gutxiago dituzten pertsonak ahulago, deprimituago edo etsiago sentitu direla, eta psikofarmako gehiago kontsumitu dituztela pandemian, baliabide sozioekonomiko gehiago dituztenek baino.

Adinaren arabera: 18 eta 34 urte bitarteko gazteak izan dira osasun mentaleko zerbitzuetan gehien ibili direnak, antsietate-atake gehiago izan dituzte baita tristura sintoma gehiago ere. Datuen arabera, gazteak dira pandemiaren ondorioz eguneroko bizimodua gehien aldatu dutenak.

Desgaitasuna duten pertsonak: ONCE Fundazioak egindako azterlan baten arabera, desgaitasuna duten pertsonen ehuneko esanguratsu batek okerrera egin dute haien gogo-aldartean, eta psikofarmakoetara jo behar izan dute.

Gaixotasun mentala duten pertsonak: Grupo 5 enpresak egindako azterketa baten arabera, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen %21,4k ohi baino psikofarmako gehiago behar izan dituzte pandemian.

Emakumeak: azterlanek adierazten dute pandemian zehar emakumeek arris-



ku handiagoa dutela osasun mentala okertzeko desberdintasunarekin lotutako faktore batzuen ondorioz; adibidez, familiako eta zaintzako erantzukizunen karga handiagoa izatea (telelana zainketekin uztartzea). Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ere okerrera egin dute osasun mentalari dagokionez, ikerketa batzuen arabera. Konfinamenduan erasotzailearekin etengabeko bizikidetzaz izateak, antsietate- eta depresio-mailak handitu ditu.

Umeak eta nerabeak: umeak eta nerabeek ere nabarmen igartzen dituzte pandemiaren ondorioak. Gurasoen %85,7k adierazi dute konfinamenduan zehar aldaketak nabaritu dituztela seme-alaben portaeran eta egoera emozionalean (kontzentratzeko zailtasuna, asperdura, suminkortasuna, ezinegon, ondoeza, lo-arazoak, etab.).

Hainbat profesional: antsietatea eta depresioa ere areagotzen ari da osasun-langileen eta irakasleen artean

Zergatik eragiten dio horrela pandemiak osasun mentalari?

Guztiok, bai umeak, bai nerabeak, bai helduak, bai adinekoak, aldaketak bizitzen ari gara gure errutinan, eta lehen ezinbestekotzat genituen askatasunetako batzuk galdu egin ditugu. Hala ere, orain hobeto ohartu gara zein beharrezkoak ziren gure osasun mentala zaintzeko.

Beharrak desberdinak dira bizitzako etapa bakoitzean, baina badago guztiok behar dugun zerbait. Denok dugu premia gure emozioak (bai alderdi afektiboa eta gozamina, bai aurkako giroa) askatu eta kudeatzeko, besteen eta gure testuinguruaren bidez. Hau da, egunerokoan gure modukoak edo gure senideen modukoak ez diren beste pertsona batzuekin eta beste testuinguru batzuetan bizitzeak aukera ematen digu beldurrak, larritasunak, mina, tristura eta abar prozesatzeko, eta ongizatea partekatzeke (Janin, 2020).

Umeak eskolara eta parkeetara joan behar dute beste batzuekin jolastu, haserretu eta adiskidetzeko (edo ez), hori baita adierazteko, ulertzeko eta hazteko duten modua. Nerabeek lagunekin egon behar dute, gurasoengandik banandu eta euren istorioa idazteko. Esperientzia berriak partekatzeke, besteekin identifikatzeko, euren kezak eta nahiak ezagutzeko. Era berean, helduek eta adinekoek euren laneko, familiako edo bikoteko errutinatik



deskonektatu behar dute, eta beste testuinguru batean gozatu eta lasaitu.

Pandemiak aurreko guztia lapurtu digu, ez digu atsedetik ematen behar horiek guztiak prozesatu ahal izateko. Distantzia soziala mantentzera behartzen gaitu, eta horrek, nolabait, geure baitan edo familian ixtera bultzatzen gaitu. Burbuila moduko horretatik ez ateratzeak tentsio handiko egoeretara eramaten gaitzake, eta ondorioak izan ditzake osasun mentalean. Aurrekoari gehitu behar diogu ziurgabetasun-sentsazioa, egoeraren kontrola ez izatearena eta noiz amaituko den ez jakitearena. Horri gehitu behar diogu, jakina, gu edo gure izakirik maiteenak gaixotzeko etengabeko beldurra, informazioaren saturazioa eta, nola ez, heriotzaren beldurra.

Horrek guztiak ahulago, hauskorrago eta, beraz, emozionalki ezegonkorrago

bihurtzen gaitu, eta gure osasun mentala arriskuan egon daiteke. Egoera horrek atsekabea eragiten du, baina ez dugu ahaztu behar ekaitzaren ondoren barealdia iritsiko dela. Beharbada ez dakigu noiz zehazki, baina badakigu amaiera helduko dela. Baliteke gauza batzuk aldatu izana. Baina aurrera egin ahal izateko aldatu beharko ez litzatekeena da elkar zaintzen jarraitzeko ohitura eta indartsu jarraitzeko aukera ematen diguten loturei eustea.

Baliteke, besteekin lotuta eta indartsu jarraitu ahal izateko, kanpoko laguntza behar izatea. Kasu horietan, **ez izan zailtzarik eta jo ezazue osasun mentaleko profesionalengana.**

Irene Goikoetxea Ayastuy

Txorierriko Mankomunitateko SIPEko psikologoa

Bilboko Euskal Museoak Zamudion du biltegi berria

Museoa Bilboko biltegia husten dabil, bilduma Zamudio-ko instalazio berrietara ekarteko. Zamudion erabilitako teknologiarri esker, bilduma lekualdatzeko prozesua jatorritik helmugara kontrolatu ahal izango da, QR kodeen bidez trazabilitatea hautsi gabe. Biltegiak 1.150 metro koadro ditu eta, besteak beste, hauek daude bertan: ingurumen-parametroen kontrola, ehunetarako eta obra grafikorako konpaktu gurgildunak, neurgailu elektronikoak eta sistema hidrofugoa duen gela bat. Zamudion 50.000 pieza baino gehiago gordeko dira.

Biltegiaren aurkezpenean izan ziren Unai Rementeria Bizkaiko ahalzun nagusia, Juan Mari Aburto Bilboko alkatea eta Sorkunde Aiarza Euskal Museoko zuzendaria. Ekitaldian azaldu zenez, Zamudio-ko biltegian museoko bildumaren zatirik handiena gordeko da kontserbazio-neurri egokietan. Instalazio aitzindariak dira, azken belaunaldiko ekipamendua baitute: biltegitratzeko altzariak kudeaketa-sistema propioa dute eta horrek funtsen trazabilitatea eta funtsak bilatzea eta kontsultatzea errazten du. Kudeaketa-sistema hori biltegitratze-mota bitan instalatuta dago –bata, mota finkokoa eta irekikoa; eta bestea, mota itxikoa eta gurgildun elektronikokoa– eta objektuak berehala kontrolatzeko aukera ematen du, hauek uztartze-erri esker: software aurreratua, objektu eta kokatzeko-mota bakoitzean ipinitako QR kodeak (sektorean, blokean, modulan, apalean, tiraderan, sarean...), eta objektu bakoitza kokapen batean ipintzeko PDA mugikor bat.

Instalazio aitzindariak dira, azken belaunaldiko ekipamendua baitute

Euskal Museoa lehenengoetarikoa da Euskadin informazio-katea hautsi gabe bilduma bat lekualdatzen

Teknologia horri esker, Museoa bilduma aldatzeko prozesua oso-osorik kontrolatu daiteke. Hortaz, Euskal Museoa lehenengoetarikoa da Euskadin informazio-katea hautsi gabe bilduma lekualdatzen, une oro jakinda pieza non eta zein egoeratan dagoen, gailu mugikor bat kontsultatuta. Era beran, kontrol topografikoaz gainera, teknologia horrek ahalbidetzen du pieza etorkizunean ere non dagoen jakitea, esaterako, kontserbazio-lanengatik edo maileguan uzten delako, biltegitik ateratzen bada.

Zamudiokoa ez da biltegi arrunta, baizik eta ingurumen-parametroen kontrola duen biltegi normalizatua. Eredu bakoitza ondare-mota jakin bat hartzeko pentsatuta dago: objektu astunak edota neurri handikoak (egitura irekietan biltegitratutako altzariak kasu) eta tamaina



txikiko eta ertaineko objektuak (adibidez, ehungintza eta zeramika, gurgildun konpaktuetan biltegitratutak). Bestalde, ehungintzaren eta obra grafikoen beharrezanetara egokitutako ingurumen-baldintzak dituen areto independentea atondu da, sistema hidrofugoa ere baduena. Sua izanez gero, hutsa sortuko litzateke gune horretan eta minutu gutxitan sistemak amaturuko luke sua, bilduma kaltetu barik. Gainera, biltegi osoan tenperatura- eta hezetasun-neurgailu elektronikoak daude, baita *in situ* kontrola eta *app* bidezkoa. Eraikinaren kontrol klimatikorako eta sua prebenitzeko eta itzaltzeko ekipoa kontrol-gela batetik kudeatzen da, eta horrek bermea ematen du piezak behar bezala kontserbatzeko.

Azpiegitura berrian 1.764.858 euroko inbertsioa egin da azken hiru urteetan, eta besteak beste, hurrengo alderdi hauek hartu dira kontuan: aurretiazko azterketa teknikoak, lekualdatze-prozesua, horretan laguntzeko kanpoko langileak, klimatizazioa, altzariak (egitura irekiak eta konpaktu gurgildunak) eta piezak garbitu eta desinfektatzea. Biltegiak solairu bi ditu, 1.150 metro koadro orotara.



Zamudioko azpiegituran 50.000 pieza baino gehiago gordeko dira. Museoko teknikariek, laguntzaileek eta zaharbertzaileak osatutako lantalde bi ari dira bildumako piezak mugitzen, eta espero dute 2021eko bigarren hiruhilekoan amaitzea.

Orain arte, Euskal Museoak bederatzi biltegi izan ditu Unamuno plazako eraikinean. Hango piezak Zamudiora ekarrita, "nabarmen hobetuko da gure kultura-ondarearen kontserbazioa". Ondare horren zati bat -7.600 pieza inguru- Eusko Jaurlaritzaren Emsime plataforma digitalaren bidez kontsulta daiteke. Bestetik, piezak lekualdatzeko prozesua baliatu da haietako batzuk jabeei itzultzeko, hala nola altzari batzuk -bilduman jada ordezkaturak daude-, eta beste batzuk maileguan uzteko, adibidez, Itsasmuseumi lagatako nabigazio-tresnak eta itsasontzien maketak.

*Biltegiak 1.150 metro
koardro ditu eta bertan
50.000 pieza baino
gehiago gordeko dira*

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Animalien osasuna ardatz

RAMON JUSTE JORDAN | ikertzailea

Barbastron (Huesca), 1957an jaioa, Albaitaritzan lizentziatu eta doktoratu zen Zaragozan eta Euskadira orain dela lau hamarkada ailegatu zen Nekazaritza Ikerkuntzarako eta Hobe-kuntzarako Zerbitzuan lan egitera; Loian 1998tik bizi da. Gaur egun, ikertzaile nagusi dabil NEIKERen eta, Stanforderko Unibertsitatearen arabera, Albaitaritzan Espainiako ikertzaile onenetakoa da munduan.

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Matematikak dira, besterik gabe. Kontuan hartzen dira aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikulak eta beste ikertzaile batzuek norberaren artikulak horiek zenbat aldiz aipatu dituzten, eta gero, formulak erabilia, leku batean edo beste batean sailkatzen gara”, esan digu. Orotara 250 artikulak idatzi ditu animalien osasunari buruz. Testu gehienetan, mikobakteriek eta lentibirusek eragindako gaixotasunak izan ditu hizpide, baina momentuko gaiak ere aztertu ditu, behi eroen sindromea kasu. “Neiker entzefalopatia espongiformeko erreferentzia-zentroa izan zen Euskadin, eta denboraldi batean elkarlan estuan aritu ginen medikuekin”. Hala ere, kexati agertu da COVID-19ak eragindako osasun-krisian ez delako albaitariengana jo. “Albaitariok medikuek baino ohitura handiagoa dugu agente patogeno infekzioekin lan egiteko. Nire ustez, akatsa izan da gure eskarmentua ez baliatzea: birusa lehenago eta modu eraginkorragoan kontrolatzen lagundu ahal izango genuelakoan nago”.

Arestian argitaratutako artikulak batean, hain zuzen, azaldu du etxeko animaliek neurri batean babestu gaitzaketa birusetik. “Teoria da. Nolanahi ere, animaliekin harremanetan egotea gizakien defentsarako mesedegarri den ideia ez da

berria, espezie guztien osasuna oso lotuta baitago beste espezie batzuen osasunari. SARS-CoV-2 birusa ez da ezerezetik atera, beste espezie batean zegoen beste koronabirus batetik baizik; koronabirus hori eboluzionatuz joan da, harik eta gizakiongan eritasuna sortzeko gauza den aldaera bihurtu den arte. Horregatik da inportantea medikuek eta albaitariok elkarrekin lan egitea, izan ere, medikuek sendatzea dute ardatz nagusizat, eta albaitariok, eritasunei aurrea hartzea, zeren eta eguneroko lanean ez baitaigu interesatzen animaliak gaixotzea”.

*“Animaliekin
harremanetan egotea
gizakien defentsarako
mesedegarri izan daiteke”*

Juste NEIKEReko Animalia Osasuneko Departamentuaren burua izan da 15 urtean eta gaur egun ikertzaile nagusi dabil bertan. “Gehienbat mikobakterioak ikertzen ditut; onddoenaren antzeko hazkundeak duten bakterioak dira. Oso lan teorikoa egiten dut: bibliografia eta datuen analisisa; animalien laginak, esaterako, beste lankide batzuek hartzen dituzte. Zehatz-mehatz mikobakterioei lotutako txerto bi landu ditugu: bata, paratuberkulosiaren kontra, eta bestea, tuberkulosiaren aurka. Gainera, basurdea iberiar penintsulako tuberkulosiaren gordailu gisa identifikatzen lagundu dugu, eta basurdeei jartzeko txertoa sortu. Txerto hori garatuz joan gara hainbat animalia-espeziei jartzeko eta orain hura hobetzen saiatzen gabilta, tuberkulosia prebenitzeko

hainbat espezierengan zer eragin duen jakiteko”.

Luze

Orain gutxira arte, immunitate-sistema bakarrik gaixotasun bakoitzerako berriazko txertoa erabilia bizkortu ahal zen ustea zegoen, baina urteetan bildutako ebidentziek agerian utzi dute patogeno zehatz baten kontrako txertoak immunitate-erreakzioa sortzen duela beste mota batzuetako infekzioen aurrean ere. Horri ikasitako immunitatea esaten zaio. Adibidez, gizakien txertaketen emaitzak aztertuta, ikusi da garapen bidean dauden herrialdeetan tuberkulosiaren aurkako txertoak haurren heriotza-tasa murrizten duela gaixotasunaren intzidentzia-tasatik harago; hau da, tuberkulosia ez den beste gaitasun batzuek eragin ditzaketen heriotzak saihesteko gai da. “Oso mekanismo interesgarria da eta albaitaritzan orain arte ez da berriaz aztertu; guk paratuberkulosiaren aurkako txertaketa erabili dugu horretarako. Zentzuzkoa da pentsatzea ikasitako immunitateak oso eginkizun inportantea izan duela gizakion bilakaeran, immunitate-sistema sendoa behar dugulako hirietan eta hainbeste jenderekin kontaktu hain estuan bizi ahal izateko. Gaixotasun bat gainditu edo txerto bat jaso ondoren, litekeena da beste eritasun batzuetatik babesten gaituzten defentsak sortzea. Ideia hori aztergai

“Albaitariok SARS-CoV-2 birusa modu eraginkorragoan kontrolatzen lagundu ahalko genukeen”

“Zentzuzkoa da pentsatzea ikasitako immunitateak eginkizun inportantea izan duela gizakion bilakaeran”



dago gaur egun eta gustatuko litzaiguke hari buruzko ezagutza zientifikoa sortzen jarraitu eta ekarpena egitea”.

Luzea da ikerketa-prozesua; paratu-berkulosiaren kontrako txertoa garatzen, esate baterako, 15 urte daramatzate. “Ikerkuntzan egiten den inbertsioa ez da nahikoa; txikia da, gurearen antzeko bizi-maila duten herrialdeetan egiten denarekin alderatuta. Politikariei gustatzen zaie esatea ikerkuntza sustatzen dutela, zerbait positibotzat hartzen delako; hala ere, dirua banatzeko orduan lehentasuna ematen diete beste gai ikusgarriago batzuei, botoak eskuratzen lagunduko dietenei. Ikerkuntza bigarren mailan uzten da, baina, egia esan, ikerkuntzan inbertitzea oso onuragarria da, epe ertainean eta luzean lehiaketa-abantailak ekartzen dituelako”.

Zientzia bakarra da, eta herrien arteko lankidetzeta, bizia. Alabaina, produktua edo prozedurak garatu behar direnean, bakoitza bere buruaz arduratzen da. “Zientzia oso altruista da teorikoki. Diru publikoarekin finantzatzen da eta guztion onurarako izan beharko luke; halere, gizarte kapitalista batean bizi gara eta

Inbertsio txikia egiten da ikerkuntzan; hala ere, onuragarria da, lehiaketa-abantailak ekartzen dituelako”.

diru-irabazia da jardueraren motorra. Ezagutza zientifikoa industriaren interesekoa da, baldin eta irabazi ekonomikoa ekar dezakeen erabilera praktikoa badu. Izaitez, Europako sistema zientifikoari egiten zaizkion kritiketako bat da, oso teoria edo zientzia ona egin arren, ez dela produkzio-sektorerara heltzen; Estatu Batuetan edo Asian, berriz, argiago dute ikerkuntzan inbertitzea azkenean errentagarria dela”.

Bokazioa

Juste Albaitaritzan lizentziatu eta doktoratu zen Zaragozako Unibertsitatean. “Txikitan esaten nuen medikua edo albaitaria izango nintzela. Egia esateko, albaitari-medikuntza giza medikuntza baino malguagoa iruditzen zitzaidan:

giza medikuntzan erantzukizun pertsonal handiagoa dago; albaitari-medikuntzan zientzia purua da nagusi eta ez dago alderdi sozialik edo emozionalik”. Aitortu duenez, karrera egiten zebilela ez zuen pentsatzen etorkizunean ikerkuntzan arituko zenik. “Karrera bukatuta, hurrengo urratsa doktoretza egitea zela erabaki nuen. Baina ez nuen horretarako bekarik lortu, eta doktoretza eta lana uztartzeko hautua egin nuen”. Albaitari-klinika egin zuen bere herrian, Barbastron, eta gero Terueleko Maestrazgoko herri batean. Euskadira 1982an ailegatu zen, Eusko Jaurilaritzari Nekazari Ikerketa transferitu zitzaionean. “Hasieran Nekazaritza Ikerkuntzarako eta Hobekuntzarako Zerbitzua ginen, SIMA, eta Nekazaritza Sailaren baitan izan ginen. Ondoren, 1998an, enpresa publikoa bihurtu ginen, NEIKER alegia”. Juste Parasitologia eta Biologia Taldearen burua izan zen 1991ra arte. Urte horren amaieran, eta tesia amaituta, Nebraskako Unibertsitatara joan zen bere burua biologia molekularren eta mikobakterioen teknikan trebatzera. Ondoren, ia bi urte eman zituen ikertzai-



a: Irati Juste

le giza Texaseko Unibertsitatean lentibirusak aztertzen.

Euskadira 1995ean itzuli zen, eta behin NEIKER eratuta, Animalia Osasuneko Departamentua zuzendu zuen 2015era arte. Urte horretan Asturiaseko Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Garapenerako Zerbitzuaren (Serida) zuzendari kudeatzaile izendatu zuten. "Beti esan dut ez nuela erantzukizun administratiborik nahi, baina Asturiasen egonda konturatu nintzen beste lan batzuei ere heldu ahal niela. Dena dela, Serida zerbitzuan egon nintzen bitartean, ikerketan ere jarraitzeko aukera izan nuen, eta hango eta hemengo ikertzaileekin kolaboratu, baita artikulak argitaratu ere. Egunak 24 ordu ditu eta kudeaketari 10 ordu eskaini arren, hiru ordu atera ahal dira ikerkuntzarako...". 2020ko otsailean NEIKERera bueltatu zen eta gaur egun ikerkuntzan dabil buru-belarri. Animaliek noizbehinka izurriteren bat pairatzen badute ere, bere lan-ibilbidean momentu berezi bi bizi izan ditu: hegazti-gripea eta mihi urdinaren gaitza. "NEIKER penintsulako laborategi bakarra izan zen

hegazti-gripea sortzen duen H5N1 birusa isolatzen".

Bestalde, loiuztarrak 12 doktoretzatesi zuzendu ditu eta adierazi digu oso harro dagoela horretaz. "Pertsona horietako bederatzia NEIKERen dabilta lanean; bi, Osakidetzan; eta azkena, Alemaniako medikamentuen agentzian. Prestigio handia dakar nork bere burua NEIKERen hezteak, Estatuan zein nazioartean". Bere lana ere saritu dute. Horrela, bada, Isabel Minguez Tudela saria jaso zuen 2016an eta duela gutxi bere lantaldeari Zenda saria eman diote animalien osasunaren ikerkuntzaren kategorian. "Ondo dago norberaren lana aintzat hartzea, baina ez dut horretarako lan egiten. Benetako akuilua da ezagutza sortzea, ikastea eta gauza berriak aurkitzea".

"Sariak baino, benetako akuilua zera da, ezagutza sortzea, ikastea eta gauza berriak aurkitzea"



Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIAK-2021

A1 eta A2 mailak egiaztatzeko, ebaluazio-jarrailuaren bidez.

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko, bi deialdi (euskaltegian egon behar da matrikulatuta):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

ADI !! matrikulatzeko epea: 2021eko apirilaren 6tik 14ra

DEIALDI IREKIAK-2021

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko matrikulazio epeak (ez da euskaltegian matrikulatuta egon behar):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

HOBE 2021 (ORDENAGAILUEN BIDEZ)

-Lehen azterketaldian: C1 eta C2

-Bigarren azterketaldian: B1, B2, C1 eta C2 egiaztatu ahal izango dira.

Matrikulazio epeak:

-2021-03-9 / 2021-03-16 (biak barne).

-2021-09-1 / 2021-09-8 (biak barne).

(*)Plaza kopuru mugatua dago.

INFORMAZIO GEHIAGO: habe.euskadi.eus



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrin.eus

JAVIER MOSQUERA**TIK TAK (DERIO)**

Negozioa 2006an zabaldu zuen: etxera eramateko janaria eskaintzen dute eta 10 langile baino gehiago dira. "Erabateko konfinamenduan normaltasunez lan egin genuen, oinarritzko zerbitzua garelako; orain, berriz, dendan bertan bakarrik 21:00ak arte hartu daitezke eskaerak eta azken banaketa 22:00etan da. Lan-ordu gutxiago dugu horren ondorioz, baina lana handitu ere egin da ordu gutxiagotan gehiagori erantzun behar zaiolako. Estresagarria da. Gainera, sukaldean maskara jantzita lan egitea ere ez da oso lagungarria beroa dela-eta, eta segurtasun-neurri zorrotzak hartu behar dira banaketak egiteko... Baita dendan ere, bezeroak banan-banan artatu behar direlako eta, hortaz, ilarak izaten dira kalean". Bere esanetan, bezeroek lehen beste kontsumitzen dute. "Hala ere, orain diru-txartela eta dendako plataforma askoz gehiago erabiltzen dira ordaintzeko. Bestetik, uste dut aldaketa txikia egongo dela kontsumo-ohituretan eta otorduak-eta lehenago egiteko ohitura hartuko dugula".

**ION OTAOLEA****SUIT DE LUX (DERIO)**

Familia-negozio txikia 1998an heldu zen Deriora: ordurako denda zuten Leioan, eta aurten, bestalde, boutique txikia zabaldu dute Bilbon. Atsedenerako produktu-sorta zabala eskaintzen dute, eta kalitatearen aldeko apustua egin. "Pandemiaren hasiera oso gogorra izan zen eta, bi hilean itxita, zalantza asko genituen. Hala ere, neurri batean, gurea sektore pribilegiatua da, jendea konturatu delako etxean eroso egotea oso inportantea dela eta, ondorioz, konfortean inbertitzen hasi da. Gainera, koltxoi ona erosteko, ez da beharrezkoa oso-oso inbertsio handia egitea; egunero diru apur bat aurreztearekin nahikoa da. Horren harira, nahi dugu jendeak hau barneratzea: atsedean onak bizi-kalitatea hobetzen du". Etorkizuna zalantzez beteta dator eta nahiago du epe laburrera begira. "Gakoa da gauzak ondo egitea, norberaren produktua defendatu, eta jendea ez engainatu eta benetan produktua eskaini".

IDOIA ZUBIETA

IDOIA ZUBIETA HORTZ-KLINIKA (ZAMUDIO)

Aurten 20 urte bete dira hortz-klinika zabaldu zuela; sei langile dira. "Lehen bagenuen dena oso zorrotz esterilizatzeko ohitura, baina, horrezaz gainera, beste protokolo batzuk ezarri behar izan ditugu: pazienteei tenperatura hartu, oinetakoak desinfektatu, pazienteak ezin dira aldi berean itxarote-gelan egon, tratamendua egiten hasi baino lehen produktu espezifiko bat hartu behar dute, COVIDa bi orduan neutralizatzeko... Ondorioz, eta ahalik eta zerbitzu onena emateko, ordutegia luzatu dugu eta 12 ordu izaten gara zabalik. Pazienteak hasieran apur bat mesfidati etortzen ziren arren, gaur egun normaltasun osoz etortzen dira; gainera, oso arduratsu jokatzeko dute. Mezua hau da: jendea lasai etor dadila, izan ere, lehen zorrotz-zorrotzak ginen higienerekin, eta orain zorrotzagoak; kontu handiz gabil-tza". Itxiera perimetralek eragina izan dute euren lanean; hala ere ez da oso eragin handia izan. "Guk lan egin nahi dugu, hartu beharreko neurriak hartu, eta lan egin".



IÑIGO AURTENETXE,

AURTENETXE LORATEGIRAKO MAKINERIA
(LEZAMA)

Familiako enpresa da eta gaur egun 15 langile ditu. "Lan egiteko modua erabat aldatu da. Alde batetik, esate baterako, joan-etorrietarako ziurtagiria egin behar zaie bezeroei, eta batzuek, gainera, nahiago dute produktua etxean bertan jasotzea, leku batetik bestera mugitzen ez ibiltzeko; ondorioz, orain sarriago eramaten ditugu produktuak bezeroen etxera. Bestetik, dendan lan egiteko modua ere asko aldatu da: maskarak, pantailak, langileon arteko distantzia, bilerak egiteko era... Lan-bolumenari dagokionez, lan handiagoa dugu orain, izan ere, etxean denbora asko pasatzeak ekarri du jendeak etxean zein etxe inguruan inbertitu nahi izatea, eta, hortaz, makineria gehiago saltzen da gaur egun, baita alokatu ere. Etxean gehiago ospatzen dugu orain, eta, beharbada, horrek ere eragina izan du... Bueno, egia esan, ezin gara kexatu".

Ia 400 pertsonak EGAZ Txorierriren bidez topatu dute lana

Enplegu eta Garapen ekonomikoko zerbitzuak jakinarazi duenez, ia 398 pertsonari lagundu zieten lana topatzen. "Datu pozgarriak dira. Oso urte korapilatsua izan da lan-eta ekonomia-arloetan eta horregatik asko pozten gaitu eskualdeko enpresei eta biztanleei lagundu ahal izateak", azaldu du Alex Loustaunau EGAZ Txorierriko kudeatzaileak.



Lagun horien % 12ri kontratu muga-gabea egin zieten eta kontratu gehienak lanaldi osoak izan ziren. Gainerakoek, bestalde, aldi baterako kontratua eskuratu zuten: % 70ek lanaldi osoa, eta % 18k lanaldi partzialekoa. Kontratututako pertsonen % 64 45 urtetik beherakoak ziren eta goi-mailako ikasketak eginda zituzten. Era berean, 203 emakume kontratatu ziren. Besteak beste, hurrengo arlo haue- tan egin ziren kontratuak: manufaktura- industria, zientzia, oinarritzko lanbideak, laguntza-zerbitzuak, ostalaritza, merkataritza eta makinaren operadoreak. Gainera, kontratazioak sustatzeko laguntzei esker, 33 txorierritar hartu zituzten hainbat sek- toretako enpresetan.

EGAZ Txorierri besterik ez zuten 2020an, hala nola HA-

ZILAN egitasmoa, telefono bidezko eta aurrez aurreko orientazio-zerbitzuak eta lankidetzajardunaldiak enpresek.

Enpresa-ideiak

Bestalde, zerbitzuaren arduradunen esanetan, 2020an 51 enpresa-idea garatzen lagundu zuten eta proiektu horietatik 28 ipini ziren martxan. Hortaz, 31 lan- postu berri sortu ziren Txorierri.

Loustaunauk adierazi duen moduan, zerbitzuak hainbat urte daramatza erabiltzaileei enpresa berriak sortzeko tresnak eskaintzen. "Helburua da testuinguru lagungarria sortzea, ekintzaileak zein enpresak hazi daitezen, ongizatea eta enplegua sortu ditzaten eta gaur egungo merkatuaren erronkei aurre egiteko behar moduko eskala-ekonomia lortu dezaten". Horretarako, tutoretza pertsonalizatu

bidez, EGAZ Txorierriko Negozioaren Plana egiteko aukera eskaintzen die erabiltzaileei; hau da, negozio-idea proiektu egituratua bihurtzeko aukera. Bertan, besteak beste, enpresaren helburu orokorrak eta berariazkoak zehazten dira, helburu horiei heltzeko estrategia, organizazioaren egitura, egin beharreko diru-inbertsioa eta arazoei aurre egiteko konponbideak. Gainera, informazioa ere eskaintzen die forma juridikoei, izapideei eta dirulaguntzei buruz.

EGAZ Txorierriko ekintzaileentzako ikastaroak ere antolatzen ditu, enpresa-kudeaketari lotutako ikastaroa kasu, eta, behin enpresa martxan ipiniz gero, Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzuak baliatzen da ekintzaileei proiektua sendotzen laguntzen jarraitzeko eta helburu berriak ezartzeko.

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-itxialak, orokorrean
Autokorrekuntza-zerbitzuak
Mantentze garbi-itxialak
Bulegoak eta lokalak
Orra emariak garbitzeko
Itxuratzak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Gazteok memoriaren haria

Hegazkin bat, bi, hiru hegazkin. Altxamendu bat. Ehunka hildako. Bonbak. Odola.
Frankismoa. Euskal gudariak faxisten aurrean, parez pare.

t: Ernai Larrabetzu

1936ko uztailaren 17an Espainiako armadako militarrek Bigarren Errepublikako gobernuaren aurka altxatu ziren, eta Estatuan Espainiako Gerra Zibila izeneko gertakariak eztanda egin zuen, 1939ko apirilaren 1ean bukatu egin zena. Hark milaka hildako utzi zituen eta Euskal Herriko hainbat txokotan ere borrokaldiak izan ziren. Haietako bat Bizkargi mendian izan zen.

Gerra Zibilean, Bilboko Burdin Hesia eraiki zen defentsa-sistema gisa, Bilbo inguruan, Txorierriko eta Galdakaoko eremuan, 2,5 km-ko distantzia hartzen zuela. Mendigunea Burdin Hesiarekiko hurbiltasunagatik balio taktiko handiko kokalekua izan zen. 1937ko maiatzaren 9an, Nafarroako Brigadak Muxika eta Besanguitz auzoa hartu zituzten, eta 10ean, 266 eta 312 kotek osatutako lerroa eta Zarraigoikoa baserria, horrela Bizkargira iritsiz. Behin betiko eraso goizaldean izan zen, Bizkargitik Arburura eta 466 kota okupatuz. Bertan, tontorrean dagoen Santa Kurtze ermita ere suntsitu zuten, eta 1943ko maiatzaren 3an berriro ere eraikia. Bizkargiko borrokaldiek ehunka hildako utzi zituzten eta kopuru horrek gorantz egin zuen 1936az geroztik.



a: Idoia Andres



gazteok memoriaren haria
maiatzak 2
BIZKARGI EGUNA

Igoera:
Larrabetzu 10:00 Plazan
Zornotza 09:00 Erreferendum Plazan
Gernika 10:00 Astran
Mungia 09:15 Herrikoan

12:00 Belaunaldien arteko mahaingurua:
"Memoria dugu amas"

13:30 Ekitaldia

14:30 Bazkaria
(Norberak ebetetik)

15:30 Bertso saioa

16:30 Kantaldia

18:00 Jaitsiera

antolatokuntzak: independentzia • sozialismoa • feminismoa

1965eko urriaren 17an, Lehenengo Gudari Eguna ospatu zen Bizkargin. Eta orain guri dagokigu Euskal Herriaren askatasunaren alde eta faxismoaren aurka borrokatu zuten gizon-emakumeak oroitzea eta 56 urtez belaunaldiz belaunaldi aldarrikatu den eguna gogoratzea. Horretarako, Larrabetzu, Zornotza, Gernika eta Mungiako gazteok maiatzaren 2rako egun osoko egitaraua prestatu dugu;

hainbat belaunalditako militanteen arteko mahai-ingurua, ekitaldia eta musika eskaintza. Txorierriko gazteriarri ekitaldietan parte hartzeko eta 10:00etan Larrabetzuko plazara etortzeko deia egiten diogu.

Gudariak oroitzea eta haiek hasitako borrokaren lekukoa hartzearen konpromisoa hartu dugu, gazteok etorkizuna garelako, gazteok memoriaren haria garelako.



EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55



izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Ionja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

“Jesarrita egotea ez da gure kontzertuez gozatzeko modurik onena”

Txorierriko taldeak bere lehenengo EP-a kaleratu berri du: *Topa*. Taldekideen esanetan, zaila da euren musika estilo zehatz batera mugatzea; hala ere, hainbat soinu uztartuta, sei abestik osatutako lana sortu dute, dantzatzera eta ondo pasatzera gonbidatzen duena.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Hego Amerikako musika tradizio-nalaren eragina dago *Topa* lanean: hura eta erritmo elektronikoak uztartuta, emaitza oso abesti dantzagarriak izan dira.

Aipatutakoaz gainera, musika-estilo hauek ere badaude lanean entzungai: hip-hop, dubstepa, drum n bassa, cumbia eta son kubatarra. Beharbada, ez dira oso musika-estilo ezagunak, baina haiek jorratzen dituzten musika-taldeak entzunda dituzue, ziur asko; hala nola, Los Destellos, Anarkia Tropikal, Zoo eta Tremenda Jauria. Talde horiek erreferentetzat ditugula, estilo propioa sortu dugu eta abestiak esan-dako estiloak uztartzearen emaitza dira.

Konfinamenduan hasi zineten proiektua eratzen, nolakoa izan da prozesua?

Onlineko bilera egin genuen eta bururatu zitzaigun cumbia abesti batzuk bilduko zituen EP-a egitea. Abesti bi eginda genituen ordurako eta sei abesti berri idatzi genituen konfinamenduan eta udan. Ekoizteko ordu asko izan genituen konfinamenduan, eta kontzertuak egiteko ilusio handia ere bai. Izan ere, etxean sartu aurreko azken kontzertua Hori Bai gazte-txean egin genuen eta oso ondo pasatu genuen bertan; etxealdia amaituta, jendez gainezka izan ohi ziren herriko jaiak

MATXINADA | musika-taldea



ez egoteak keztatu gintuen... Konposatutako abestiak udaren amaieran grabatzen hasi ginen eta pianoa, baxua eta ahotsak grabatzen abenduan amaitu genuen. Otsailean, “Jokoa” singlea igo genuen Spotify plataformara EP-aren aurrerapen moduan. Martxoan, azken konponketak egin ondoren, EP-a argitaratu genuen.

Bestalde, Oier kanpoan bizi da orain, nola konpontzen zarete?

Oierrekin bideo-deiak egin ditugu erabakiak hartzeko eta abesti berrien gainean hitz egiteko; nahiko ondo moldatzen gara. Noizean behin Berarten etxean lotu gara instrumentuak grabatzeko, iritziak partekatzeko eta Oierrekin bideo-deien bidez hitz egiteko. Hurren-

“Egunerokotasunean topatzen ditugun gaien gainean hitz egitea gustuko dugu”

go hilabeteetan entseguak egiteko asmoa dugu, kontzertuak egiteko aukerarik izanez gero.

Besteak beste, laguntasunari eta gazteen prekarietateari buruz hitz egiten duzue.

Egunerokotasunean topatzen ditugun gaien gainean hitz egitea gustuko

dugu. "Jokoa" abestian, esaterako, aipatzen dugu gure etorkizuna agintarien arteko xake-partida dela; gure ustez, gazteok kezkatzen gaituen gaietako bat da. Beste gai bat laguntasuna da: zaila da gaur egun lagunekin egotea, eta lanak, ikasketek edo urrun egoteak zailago egiten du. Guk, gure musikan, alegiazko momentu bat aipatzen dugu, utopia izan daitekeena, lagunekin batera etorkizun oparoa izateko gogoz. Horren moduko gaiak lantzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu, komunikabideetan ez delako hari buruz hitz egiten.

Baita maitasun erromantikoa ere.

Gai hori lantzea berria izan da guretzat, baina denok bizi dugun prozesua denez, modu naturalean ateraz. "Barrikadetako maitasuna" abestian, adibidez, maitasun-istorio bat kontatzen dugu sufrimendua, mina eta dependentzia baztertuta, zeren eta pentsatzen baitugu musikaren historian, baita gaur egun ere, normalizatuta dagoela maitasuna eta sufrimendua gauza bera direlako ideia. Azken abestian, "Patxaran horretan" kantan, berriro azaltzen da maitasuna, baina beste ikuspuntu batetik: bi pertsonen arteko harremanaren alde ilunak eta ez idilikoak plazaratu nahi genituen.

Autogestioaren alde egin duzue EP-a kaleratzeko, zergatik?

Alde batetik, baliabide ekonomiko eskasak ditugulako, eta beste aldetik, kontrol handiagoa dugulako gure lanaren gainean. Aberasgarria da esperientzia eta ikaskuntza-prozesu moduan; hala ere, desabantailak ere baditu: lan handia egin behar izan dugu grabazioak eta produkzioa egiteko, eta gure tresnak eta dirua inbertitu.

"Autogestioa aberasgarria da eskarmentu ikaskuntza-prozesu moduan; lan handia ere bada"

Zuen bi bideoklipak ere autogestioaren emaitza dira?

Taldeakide bat ikus-entzunezko komunikazioa ikasten dabil eta horrek erraztu egiten digu jendea topatzea. Bideoklip

biak Lekuko ekoiztetxearekin egin ditugu: lagunarteko harremana dugu eta oso ondo moldatzen gara elkarrekin. Beste alde batetik, musika-talde batek multimedia izan behar du gaur egun: gure kasuan, batek Instagram gizarte-sarea kudeatzen du; beste batek, Twitterreko kontua; besteak, bideoak... Nahiko prozesu asanblearioa da.

EP-an sartu dituzuen abesti guztiak euskarazkoak dira.

Gure herrian, euskaraz idazteko ohitura mantendu behar dela uste dugu. Zeretik euskaraz hastea apustua dela badirudi ere, egia esan, euskal kantak asko kontsumitzen dira inguruan. Beraz, zergatik ez dugu horrela jarraitzeko ahalginik egingo? Egia da pare bat abesti gaztelaniaz ditugula, modu naturalean

atera zirelako, eta orain, Oier Bartzelonari bizi izanda, baliteke laster letra batzuk katalanez izatea... batek daki! Nolanahi ere, euskara beti izango da Matxinadaren hizkuntza nagusia.

Nola mugituko duzue Topa lana? Kontzerturen bat egin ahal izateko itxaropenik baduzue?

Interneten bidez eta ahoz aho. Gaur egungo egoera kontuan hartuta, uste dugu zaila eta arriskutsua dela jendea biltzea, eta jesarrita egotea ez da gure kontzertuez gozatzeko modurik onena.

"Euskara beti izango da Matxinadaren hizkuntza nagusia"

Ondo pasatzea

Matxinada taldea Alatz Barrenak eta Oier Bravok (ahotsak), Berart Gartzia (baxu-jotzailea) eta Ekain Zallok (dj-a) osatzen dute. Taldea 2018an sortu zuten. "Lagunen arteko proiektua da: taldea sortu baino lehen ezagutzen genuen elkar; institutuan elkarrekin izan gara, herrietako jaientan... Gure helburua beti izan da ondo pasatzea eta ikastea". Berart eta Alatz Zamudiokoak dira; Ekain, Deriokoak; eta Oier, Olakoak.

Taldeakide bakoitzak musika-estilo ezberdinak ditu gogoko: reggaea, cumbia, euskal musika tradizionala, glitch hopa, ska, musika klasikoa, reggaettoa, indiea (Kataluniakoa bereziki), dubstepa eta musika elektrolatinoa, beste batzuen artean. "Spotifyen taldeakide bakoitzak gustuko duen musikaren abestien zerrenda sortu dugu". Euren abestiak ere musika-plataforma horretan daude entzungai, baita euren YouTubeko kanalean ere.



Argazki-kamara bidelagun

ALEX ALBARRAN | argazkilari zaletua

Albarranek hainbat lekutan eta momentutan ateratako argazkiak ekarri dizkigu orrialdeetara: Carrales mendiko pagadia (Burgos), Lekeitioko itsasargia, Zamudioko "Mark Knopfler", Gijoneko Unibertsitate Laborala... Argazki gehienak iluntzean edo gauean egin ditu. "Momentu horietan argia oso berezia da eta, esku-argiek edo flashek lagunduta, irudi magikoak eta txundigarriak egin daitezke". Canon 80D argazki-kamara lagun, bidaiak-eta baliatzen ditu leku berriak ezagutzeko eta zaletasunari ekiteko. "Argazkilaritzak lasaitasuna ekartzen dit, eta egunerokotasuneko kontuetatik ihes egiteko modua. Gainera, nire burua hobetzeko tresna da, izan ere, hainbat teknika erabilia, gero eta argazki hobeak egiten ahalegintzen naiz". Aire girotuko teknikaria da eta argazkigintzarako zaletasuna lankide batek piztu zion duela urte asko; hala ere, baztertuta du hura ogibide bihurtzea. "Ez litzateke berdina izango... Bueno, argazkilari moduan lan egin, baina bidaiatzen, rallyetara joaten... bada, beharbada, bai (kar-kar)".





Pala, ilusiorako eta inklusiorako tresna



t: Alexander del Rio Antolin

Mendeak dira Euskal Herrian palan jokatzeko delakoa. Joko tradizional hori aniztasun funtzionala duten pertsonen ezaugarrietara egokitu da Derion, PAI Bitartean zerbitzuko erabiltzaileek praktikatu dezaten; PAI Bitartean da Emaus Gizarte Fundazioaren arreta osoko programa. Pala egokitua hurrengo honetan datza: gomazko pilota-paleta –horrela deitu arren, egurrezkoa da– eta teniseko pilota erabilia eta bikoteka, partidua irabazteko behar beste tanto egiten saiatzean. Kirol hau lagungarria da zerbitzuko erabiltzaileak aisialdi osasungarria gozatzeko eta, neurri batean, gizarteratu daitezen; hortaz, pairatzen duten gizarte-bazterketako arriskutik urruntzen ditu.

Atxiki pilota eskola eta PAI Bitartean zerbitzua elkarlanean gabiltza kirol “berri” honekiko talde-motibazioa areagotzeko. Gainera, Derio Txorierriko lehen udalerria izan da euskal kirol tradizional hau parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzen. Aukera da parte-hartzaileek –eta etorkizuneko parte-hartzaileek ere– hain beharrezkoa den gizarte-inklusiorantz beste urrats bat egin dezaten.

Gaur egun, sei pala-jokalari baino ez dira. Hala ere, espero dugu gero eta jende gehiagok kirol honekiko interesa agertzea eta txapelketan pala-jokalari gehiagok izena ematea. Bestalde, Derioko Udalak frontoia utzi digu astean zenbait egunetan, pala-jokalariak entrenatu ahal izate-

ko; parte-hartzaileek pozarren eskertu dute keinu esanguratsu hori.

Egi-egia da lehiatzeko eta disfrutatzeko gogoia berezkoa dela, baina palista ilusionatu eta motibatu hauen entrenatzailea ere funtsezkoa da kirola egiteko gogoia pertsona gehiagori eragiteko. Joanes Camara da PAI Bitartean zerbitzuko pala-jokalarien entrenatzailea. Bere ustez, “oso inportantea” da besteei laguntzea; gainera, eskarmentu handiko entrena-

Aukera da parte-hartzaileek hain beharrezkoa den gizarte-inklusiorantz beste urrats bat egin dezaten

tzailea da, izan ere, Txokoan Emakume Pilotazale Elkartearen entrenatzailea da gaur egun eta duela urte batzuk Olarreta Pilota elkartearen ere ibili zen entrenatzaile. Beteranotasunaren eta gogoaren arteko sinergiak emaitza positiboa baino ezin du ekarri.

Euskal Pilota Egokitua Master Cup Irekia apirilean hasi zen eta maiatzean ere partiduak jokatuko dira Getariako frontoian. Txapelketan PAI Bitartean zerbitzuko erabiltzaileek hartzen dute parte, Hazsten, Saiatu eta Gorabide elkar-teetako erabiltzaileekin batera. Gainera, Gipuzkoako hainbat klub ere badabiltza lehiaketan, pala egokitua erabat sartuta baitago euren entrenamenduetan eta lehiaketa-dinamiketan. Finala maiatzaren 9an izango da eta ETB1ek zuzenean emango du goizeko 12etatik aurrera.



Maiatzaren Lehena: jaieguna ala borroka eguna?

t: Arrate Gaztelu Agirre

1886an Chicagon jazotako Haymarketeko sarraskian du jatorria Maiatzaren Lehenak: besteak beste, zortzi orduko lanaldia lortzeko asmoz maiatzaren 1ean hasitako greban hainbat langile hil zituen poliziak. Eskaera hori, ordea, ez zen AEBtara mugatzen, izan ere, hamarkada bereziki emankorra izan zen langile mugimenduen borrokari zegokionez, greben kopuruak, grebetan parte hartzen zuten langile kopuruak eta sindikatuetaiko langile kopuruak nabarmen egin baitzuten gora. Horrela, 1889an Parisen, hainbat alderdi sozialistek maiatzaren 1a aukeratu zuten Haymarketeko sarraskia gogoraraziko zuten nazioarteko manifestazioa egiteko.

Hasierako urteetan aldarrikapen eta borroka eguna zen Maiatzaren Lehena. Gero, ordea, unean uneko testuinguruak eta langile mugimenduko talde erreferenteen izaerak definitu du egun hori aldarrikapenerako edo ospakizunerako.

II. Mundu Gerrak inflexio puntu bat suposatu zuen. Ehun produktiboaren berregituraketak (kontsumo gaitasunaren eta enplegarritasunaren gorakada) eta proposamen politikoaren berregituraketak (Ongizate Estatua) panorama berria irudikatu zuen langile mugimenduaren aurrean. Egoera horrek zekartzan erraztasunen eta erosotasunen ondorioz, langile mugimenduaren askotariko espresio politikoak (garai hartako sozialdemokrazia edo sindikatuak kasu) Estatuaren logikan

txertatzea tendentzia orokorra izan zen, horrek langile mugimendu hegemonikoaren jardunbidean eta ekimen konkretuetan eraginez. Era kontziente edo inkontziente batean, langile mugimenduak orduko pakto soziala onartu zuela esan daiteke beraz, "bake sozialaren" truke Estatuak eta burgesiak eskaintzen zizkion baldintzak onartuz.

Historiaren garapenak, ordea, bidegurutze batera eramandu "amestutako egoera" hori. Izan ere, krisiaren paradigmatik orain arte ezagututako errealitatearen oinarriak kolokan jarri ditu (kaleratzeak, kontrol sozialaren indartzea...), pakto sozialarekin batera, eta horrek, bi posizio ezberdin garatzea ekarri duela esan daiteke. Batetik, joandakoaren nostalgian harrapatuta geratutakoak, Ongizate Estatuaren berreraikuntzaren aldarripean kokatzen direnak. Bestetik, egoera horrek atzera bueltarik ez eta aukera bakarra aurrera egitea dela uste dutenak, aurkezten zaizkigun kontraesanak gaindituz.

Maiatzaren Lehena ere bidegurutze horretan dago, kontraesan horiek zeharkatuta, iraganari so egingo dion edo etorkizuna eraikitzen jarraituko duen. Nik behintzat garbi daukat: aldarrikatu dezagun etorkizun berri bat, hori baita iraganeko borrokak omentzeko erarik zuzena. Gora Maiatzaren Lehena! Gora Langileon Borroka!



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNICIALE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai leaguru Facebooken.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea:
umeak

Centro Dental
Txorierri
Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759
Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337
Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462
Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es
ORTODONCIA21

aikor!
Txorierriko aldizkaria
Zure lekua
hemen!
Iragarkia gurean ipintzeko:
688 782 642
publi@aikor.com

Hidrogeno berdea

Orain dela urte batzuk orrialde honetan bertan etorkizuna hidrogenoan ote zegoen galdetu nion neure buruari. Azkeneko egunetan geroz eta gehiago entzuten ari naiz "hidrogeno berdearena" eta horren harira artikulua berreskuratu eta eguneratzea pentsatu dut.

t: *Xabier Díaz*

Zergatik berdea? Hidrogeno-auto batean, adibidez, erregai pila bat erabiltzen da, hidrogenoa eta oxigenoa elkartu eta elektrizitatea lortzeko; prozesuan bakarrik ura isurtzen da atmosferara. Beraz, auto berdea da? Alde batetik, kontuan hartu behar da, ziur asko zeozer kutsatu dela autoa egiteko behar diren lehengaiak lortu eta prozesatzeko eta autoa bera egiteko. Beste alde batetik, eta hidrogenoari dagokionez, ez da bakarrik kontuan hartu behar amaierako erreakzioan zer gertatzen den, baizik eta hidrogeno hori zelan lortu, garraiatu eta gorde den ere.

Hidrogenoa hidrokarburoetatik lortzea da hura ekoizteko erarik errazena eta merkeena. Ez da batere harrigarria petrolioari lotutako enpresak hidrogenoaren industriaren sustatzaile nagusiak izatea, hornitzaileak eurak dira eta. Baina prozesu horretan, beste substantzia arriskutsu batzuen artean, karbono dioxidoa askatzen da. Orduan, prozesuaren zein momentutan esan dezakegu hidrogenoa berdea dela?

Hidrokarburoetatik lortzen den hidrogenoari "grisa" esaten zaio, edo "urdina", askatzen den CO₂-a "bahitzen" denean; hau da, berotegi efektua eragiten duen gas hori atmosferara isuri beharrean, eraren batean edo bestean gordetzen dugunean. Hidrogeno berdea, berriz, energia-iturri berriztagarriak eta garbiak erabilita eta uraren elektrolisiaren bidez lortzen da.

Eolikoa da egun elektrizitatea lortzeko gehien erabiltzen den energia-iturri garbia, eta gero hidraulikoa eta fotovoltaikoa. Hirurek dute arazo bat: aldagai naturalen araberakoak direnez, oso aldakorrek dira. Argi-indarra sobera dagoenean, esaterako, parke eolikoak gelditu egin behar izaten dira, sare elektrikoak kaltetu lezaketelako. Kasu horietan hidrogenoa irtenbidea izan daiteke: sobera ekoizten den energia garbia da eta uraren elektrolisian erabil daiteke hidrogenoa lortzeko.

Berde argia, berde iluna ala...?

Zoritzarrez, aipatutako prozesuak ez dira hain eraginkorrak. Termodinamikaren 3. legeari jarraikiz (entropiarena), erreakzio kimiko guztietan energia-galera dago, eta elektrolisiaren kasuan gaur egun maila industrialean erabiltzeko modukoak direnek % 25 baino gehiagoko galera dute; handiagoa, baldin eta ura purifikatu edo gatzgabetu beharra badago. Gainera, hidrogenoa oso dentsitate gutxiko gasa denez, bolumen handia hartzen du eta konprimatu egin behar da gordetzeko edo garraiatzeko; eta horrek energia-kostu bat du.

Hidrogenoa ez da panazea izango, lagungarria bai; espero dezagun garapenak eta diru publikoa gizartearen onerako izatea

Beste aukera bat da hidrogenoa metal jakin batzuekin erreakzionaraztea eta hidruro moduan gordetzea, baina prozesu horietan berriz ere energia behar da. Amaitzeko, energia berreskuratu nahi dugunean, Termodinamikaren 3. legeak azaltzen duen moduan, prozesuan galarak daude berriro, % 30 - % 50 bitartekoak.

Berdetzeko bidean?

Arazoak arazo, prozesu horiek egunen batean behar besteko eraginkortasuna izan dezaten ikertzen eta sistema berriak garatzen jarraitu behar dugu, eta bai Europa, bai gobernuak horren aldeko apustu handia egiten ari dira.

Hidrogenoa lortzea petrolioari lotutako enpresen menpe dago, eta horiek dira gehien ikertzen ari direnak. Grisetik berderako bidean? Ala energiaren merkatua kontrolatzen jarraitzeko beste pauso bat? Hidrogenoa ez da panazea izango, lagungarria bai, eta espero dezagun ikerketa, garapenak eta diru publikoa gizartearen onerako izatea.



a: www.sostenibilidad.com

-Etorkizuna hidrogenoan?, Aikor aldizkaria 2012-05-29 Xabier Díaz Silvestre, <https://labur.eus/HBerdea00>

-Las 10 técnicas emergentes más prometedoras del momento (2021), investigación y ciencia, Una energía libre de carbono como complemento a la eólica y la solar. 2021-02, Jeff Carbeck, <https://labur.eus/HBerdea01>

-Un breve análisis de la eficiencia de ciclo completo de la economía del hidrógeno verde, revista 15/15'15, 2020-12-07 Pedro Prieto <https://labur.eus/HBerdea02>

-Energía eléctrica en jatorria denbora errealean (estatu penintsularrekoa), <https://labur.eus/Hberdea03>

Zeuri gutuna, irakasle gazte horri

Irakaskuntza ez da self-service

t: Juan Luis Goikoetxea

Arrantzalea marinel-herrian bizi den bezala bizi naiz ikasle ohiek inguratutik; behinola ikasle izan nituenak guraso dira orain-eta. Zeuri ere, eskola garaiaz egingo dizute berba urte batzuk barru, ze gure eskola sasoiko oroitzapenak umezaroako oroitzapenak ere badira; txikien jakituria ez dela jakituria txikia gogorarazten digutenak. Izatez, betiko gara ikasle, gelaroan nahiz gelatik kanpo, gure irakaslea bizitza bera denean.

Ondo dakizunez, Zer-nori-nork da irakaskuntza, zerbait norbaiti nonork irakastea, transmisioa. Kontuan harturik, ez dela nahiko irakurtzen jakitea irakurketa irakasteko; jakinik, maistra edo maisua ez dela soilik matematikan jakitun edo soilik psikologo. Irakaslearen zeregina da bizi araztea gazteari geuk bizi izan genuena, alegia, zerbait berri edo interesgarri ikastearen ezagutua genuen pozaldia gozatu eragitea: irakurketa liluragarri hartako istorioa edo geografiako mapa hartako misterio ahaztu ezina.


Erraz ikus dezakezunez, eskola edo ikastola ez dira self-service guztiak, besterik eta bestela dira. Bada internet; bada

Google; badira tabletak -liburuak ere bai, jakina-. Hala ere, makinak ezin ordezkatu irakaslea; irakasleak burua lantzen du, baina bihotza ere bai. Bizimodua zenbakiak dira, baita humanismoa ere. Horregatik sentitzen dugu zirrara Salameroren olerkiarekin: "Nahi nuke 2 eta 2 lau izanik, 1 soberan geratzea, zeuri oparitzeko".

Irakasle izateak, ikasgelaz gainera, gurasoen ataza ere bere gain du, baita

txostenak betetzea ere; administrazioari erantzutea; batzar amaigabeak jasatea. Hau da, eguneroko errutinaz batera, irakaslearen ideala zaintzea.

Albert Camus-ek nobel saria eskuratzean, berba hauekin erakutsi zion esker ona txiki denborako irakasleari, bera gabe ez zelako horraino iritsiko: "Zeure ikasle txikerretariko bat naiz, utzi ez diona esker oneko ikasle izateari".



arnasa GARA

EGUNEROKOAN ZER?



Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnasmuneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

www.arnasagara.eus

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra astero bideo bat eta elkarrizketa bat



Etxeko sukaldaritza

Sagar eta intxaur bizkotxoak

t: Maite Lekerika

Osagaiak:

- 4 arrautza
- 12 g legamia
- 125 g jogurt greko
- 300 g urun
- 200 g azukre
- 100 ml ekilore-orio
- 2 sagar
- 40 g intxaur
- Gatz apur bat

Prestetako errea:

Labea 175 gradutan berotuko dogu. Arrautzak, gatz eta azukerea hiruzpalau minutuan irabiau doguz irabiagailuagaz, harik eta nahastea zurikatu eta bikoiztu arte. Jogurta gehituko dogu, eta irabiau; ondoren, olio –apurka eta hari fin baten–, eta azkenik, uruna eta legamia. Hagatxo bategaz irabiau dogu, suabe-suabe. Gordeko dogu.

Beste alde batetik, sagar bat zurituko dogu, eta dadotan ebagi. Intxaurrek be txikituko doguz. Sagar-dadoak eta intxaurrek oreari gehituko deusaguz, eta azken hori molde batera (guri-nagaz eta urinagaz igurtzia) botako dogu. Beste sagarra zurituko dogu, eta



zerrendatan ebagi. Zerrendak orearen gainean ipiniko doguz. Bizkotxoak labara sartu, eta 40-50 minutu inguru izango dogu bertan, egin arte. Labatik atera, eta epeltzen danean moldetik kenduko dogu.

Barazki-kuskusa



Osagaiak:

- 300 g kuskus
- 100 g kipula
- Berakatz-atal bat
- Piper gorri bat
- Piper berde bat
- 200 g kuia
- 20 ml oliba-orio
- Bi koilarakadatu curry
- 4 g gatz

Prestetako errea:

Lapiko batean orioa berotuko dogu. Kipulea (zerrendatan ebagia) eta berakatz gehituko doguz; estalgia ipini, eta barazkiak su motelean bigunduko doguz 10 minutuan. Piperrak zerrendatan ebagiko doguz, eta kuia, dadotan. Lapikora botako doguz, eta surtan beste bost minutuan izan. Erango dogu, barazkiak ez itsasteko. Ondoren, kuskusa gehituko dogu. Urez estaliko dogu eta bost minutuan egingo dogu, oso su motelean. Bigun dagoanean, currya eta orioa botako doguz eta, mahaira atera baino lehen, jalkitzen itxiko dogu minutu pare baten.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Gaitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Euskal Herria helburu* (Txalaparta), Jose Luis Alvarez Enparantza
- Indarkeriaz* (Katakrak Liburuak), Hannah Arendt
- Zeta* (Igela), Alessandro Baricco
- Besteen odola* (Elkar), Simone de Beauvoir
- Zeruko belardiak* (Elkar), John Steinbeck
- Algara mutilatuak* (Susa), Ane Labaka Mayoz

LITERATURA: UMEAK

- Zebra baten barnean* (Txalaparta), Micaela Chirif Camino
- Eta untxiak entzun* (Txalaparte), Cori Doerrfeld
- Julieta, Romeo eta saguak* (Erein), Mariasun Landa Etxebeste
- Ernesto elefantea* (Pamiela), Anthony Browne
- Galaxien umea* (Ttarttalo), Charlotte Ager

Sudokua

				7			
		7	3			9	
	1			8			
4	1	6	9			2	
8			4	2	1	3	
	3					6	4
	8		2				
				9		8	
3				6		4	7

7	4	2	9	8	1	5	3	6
5	8	9	6	3	4	2	7	1
3	1	6	5	2	7	8	9	4
4	9	5	1	7	8	3	6	2
6	3	1	2	4	5	9	8	7
8	2	7	3	6	9	1	4	5
9	7	4	8	5	2	6	1	3
2	6	8	4	1	3	7	5	9
1	5	3	7	9	6	4	2	8

sarraila-denda Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 036 663
625 100 800
info@cerrajeriatxorierri.com
www.cerrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkola, 4. lorra
48150 Derio

PATXI
KOOP

PIATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Bazkari nagusia: Baserri 4, 01110, Zamalloz (Bazkari)
Tel: 944 520 167 - info@patxi.com - www.patxi.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behe B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Azokak

Zamudio

- > Nekazamudio. Maiatzaren 8an, Pago kalean. Azokaz gainera, furgoi elektrikoak aurkeztea Lehendakari Agirre plazan eta Balkoi Apainduen Lehiaketarako loreak banatzea Bidekoetxe parkean.

Hitzaldiak

Lezama

- > "Un periodismo en el que quepamos todas", M^a Angeles Fernandezen eskutik. Maiatzaren 7an, 19:00etan, Kultura Aretoan.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Mikel Ayllonen *Zoriontsuak izatea aukeratu genuen* lana. Maiatzaren 20an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > *Piraten istorio bat* antzerkia. Maiatzaren 8an, 12:00etan, eskolako aterpean.
- > *Jule*. Maiatzaren 9an, 12:00etan, eskolako aterpean.
- > *Bualá*. Maiatzaren 15ean, 12:00etan, eskolako aterpean.
- > Kantu Kolore. Maiatzaren 16an, 12:00etan, eskolako aterpean.

Sarrerren salmenta eta informazio gehiago: www.deriokoudala.net.

Zamudio

- > Pelikula. Igande guztietan, 18:00etan, Gaztestazioan.
- > *Bullyinga, hori mina!*, umeentzako ipuin-kontaketa. Maiatzaren 8an, 11:30ean, Zamudiotarren. Izena ematea liburutegian eta udalliburutegia@zamudio.eus helbide elektronikoa.

Lezama

- > *Pride* zineforuma. Maiatzaren 14an, 18:30ean, Kultura Aretoan.

Larrabetzu

- > *No solo duelen los golpes* bakarriketa, Pamela Palencianoren eskutik. Maiatzaren 15ean, 19:00etan, lekua zehazteke.

Kirola

Derio

- > Herri-kirolak. Maiatzaren 15ean, 17:00etan, frontoian.

Zamudio

- > Udaberriko olinpiadak. Maiatzaren 29an, 19:00etan, udaletxeko plazan. Izena ematea: maiatzaren 28ra arte, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Bizkargira igoera herri-lasterketa. Maiatzaren 8an.

Musika

Derio

- > Skabidean maiatzaren 8an, Momo (Queen taldeari omenaldia) maiatzaren 9an, Zea Mays maiatzaren 15ean eta Los 5 bilbaínos maiatzaren 16an. Guztia, 19:00etan, eskolako aterpean. Sarrerren salmenta eta informazio gehiago: www.deriokoudala.net.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Amorante. Maiatzaren 16an, 18:30ean.
- > Sorotan Bele gogoan. Maiatzaren 23an, 17:00etan, frontoian.

Ospakizunak

Larrabetzu

- > Baserritarren eguna. Maiatzaren 15ean.
- > Santa Kurtze. Maiatzaren 3an.

Zu argazkilari

Zure herriko txokorik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hilero argitaratuko ditugu AIKOR! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.



Irene Diaz (Sondika)

Tailerrak

Zamudio

- > Lorezaintza. Maiatzaren 4tik ekainaren 29ra arte. Izena ematea: maiatzaren 3a baino lehen, www.zamudio.eus webgunean eta frontoiaren ondoko lokalean.
- > Homofobiaren kontra. Maiatzaren 14an, 19:00etan, Gaztestazioan.
- > Aniztasun sexuala. Maiatzaren 21ean, 19:00etan, Gaztestazioan.
- > Umeentzako zientzia-tailerra. Maiatzaren 22an, 11:30ean, Zamudiotarren. Izena ematea liburutegian eta udalliburutegia@zamudio.eus helbide elektronikoa.
- > Parkour masterclass. Maiatzaren 29an, goizean, karobian. Izena ematea: galde-tu udaletxean.

Bestelakoak

Zamudio

- > Ate irekiak, Gaztestazioan. Maiatzaren 18an eta 25ean, 17:30etik 19:30era, Gaztestazioan.

Larrabetzu

- > Kutxa Bira egitasmoa: harrera-ekitaldia. Maiatzaren 4an, 20:00etan, plazan.

BERBALAGUN

Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Jarraitzen
dugu euskaraz egiten
taldeko bideodeien
bidez

Ikasi

Lagundu

Ondo pasa

MINTZATU!!!

Erabili

Berbaz berba bidea EGITEN

Eman izena! 635 753 595 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea:





agrojardín
Astikene

Nekazaritzarako eta lorategietarako
makineria saltzea, konpontzea eta alokatzea

94 454 06 52

info@agrojardinastikene.com

www.agrojardinastikene.com